Universidad
del País Vasco

eman ta zabal zazu

Euskal Herriko
Unibertsitatea

IBeA
Ikerkuntza eta
Berrikuntza Analitikoa

Analytical and Chemometrical approaches for Bioimaging, Sensing and Metabolomics

Mireia Irazola Duñabeitia

2016

A thesis submitted for the international degree of
Philosophiae Doctor in Environmental Contamination and
Toxicology

supervised by
Dr. Kepa Castro Ortiz de Pinedo
Dr. Nestor Etxebarria Loizate

Bekak eta Finantziazioa

Esker onak

Badira sei urte IBeA ikerkuntza taldean sartzeko aukera izan nebala. Nestorri eskerrak Maitane ezagutu eta berarekin batera ikerkuntzaz gozatzen ikasi neban. Urte hauetan amestu ezin nebazan ikerketa proiektu zirraragarri pila batean parte hartzeko aukera izan dot: Silexetik hasita pintura muralen mundura eta hipertermia proiektutik ingurumen analisira.

Ilusioz eta borondate onez ahalegindu naz ikerkuntzaren bide berri hau jorratzen eta askori eskertu behar deutsuet horrenbeste amets errealitate bihurtu izana. Emandako aukerengatik, bidean zehar erakutsitako gauza guztiengatik eta nigan jarritako konfiantzagatik nabarmendu nahi zaituet.

IBeA ikerkuntza taldeari eta staff-ari (Nestor, Kepa, Juanma, Luis Angel, Olatz, Are, Gorka, Alberto, Ailette, Silvia, Marian, Maite, Iran, Maitane, Asier, Dani, Mirari) eskerrik asko zuekin lan egiteko aukera emotearren eta horrenbeste gauza erakustearren, segi zuen horretan, etorkizun oparoa opa deutsuet!

Nire zuzendariei ere mila esker, Kepa eta Nestorri, azken hilabeteetan bereziki jo eta su aritu zarielako nirekin batera lanean.

Unibertsitateko zerbitzu orokorretako taldeari (SGIker) eskerrik asko erakutsitako guztiarengatik eta prestatutako laguntzarengatik, batez ere, Alfredo, Pati, Juancar, Txesko, Bea eta Maribeleri.

Mintegian eta Zamudion izandakoei eta zaudenoi: Maitane, Unai, Ekhine, Laura, Naiara, Arantza, Haizea, Leire K., Leire M., Olaia, Itsaso, Oier, Iratxe, Nerea, Maite, Ibo, Joana, Jone, Julen, Azibar, Pati, Alfredo, Aini, Asier, Josu, Sandra, Ainhoa, Oscar, Josean, Oihana, Julene, Leti, Niko, Ane, Olivia, Nagore, Iratxe, Cristina, Hector, Maite, Marco, Marta, Arri e.a. Zuek gabe ez neban ezta horren ondo pasatuko ezta horrenbeste ikasiko. Eskerrik asko zuen laguntza guztiagatik!! Eta eskerrik asko batez be azkenaldian horrenbeste animo eta laguntza emon dostezuenoi!! Zuekin bizi izandako hamaika oroitzapen edar daroadaz nirekin; mendiko ibilaldiak, parrandak, Suediako bidaia, Dinamarkako bidaia, Manchesterreko bidaia, Eskoziako bisita, Dimako asteburu pasa, txokolatilua, bariku arratsalde *berdeak*, e.a. Etorkizunian be bizipen edar batzuk bizi daiguzan elkarrekin eiten dot gaur topa! Oraindik abentura asko daukoguz aurretik... Maitanekin kutxura tortila patata jatera, Laurarekin Errioxako laginketa... Eta gogoratu ondinon Leunganeko bueltia daukula eiteko Ekhine!!

Bizitza lana baino askoz gehiago dalako...

Eskerrik asko Eider, Leire eta Arantza!! Zuek izan zarie nire LEMA eta unian baita gure bidaia berezietan hain ondo pasatu izanaren arrazoia. Bizitza osorako lagunak izan gaitezan egiten dot gaur topa!

Bizitzari saltsa berezia emoten deutsazuen nire kuadrilakuei eta lagunei: Alaitz, Ylenia, Itziar, Itxaso, Elene, Izarne, Nahikari, Jago, Beñat, Adri, Gaizka eta Iturri. Eskerrik asko zuon animuengatik. Laster eingu aindutako bazkaixa, nire kontu!

Etxekuei eta Kepai eskerrik berezienak, hor baitzaudete beti niretako. Gaur zauzienoi eta nire ondoan izan zinatenoi eskerrik asko, eskerrik asko

amama Flora arratsaldero eiten zostazun arrera beruangatik, ez zatut inoiz ahaztuko.

Aita eta amari nola ez, beti aurrerantz eiten laguntzen dostazuelako. Tia Begoña be ezin ahaztu, bera barik ez nintzakeen ikastolara garaiz behin bez ailegauko!

Kepa, zuk badakizu, bidai honen errekonpentsa onena zu izan zarela. Eskerrik asko bizitza horren interesgarri eitiearren eta nirekin batera mendietan horrenbeste abentura konpartitziarren. Prestatu motxila! Abentura gosez nau ta!

Eskerrik asko danoi familia!! Ama, aita, Kepa, tia Begoña, Iontxu, tia Rosa, Irati, tio Patxi, Maddi, Beñat, Leire, Alberto, tio Juan Mari, tia Mila, Naiara, Xane, Oskar, Iñaki, Eneritz, Imanol,e.a. Etapa honen amaiera eta berriaren hasiera zuekin ospatzeko desiatzen nago!!

Ziur nago eskertu nahiko neban beste norbait ahaztuko nebala lerro hauetan, eta parkatu esker on hauek idaztian zutaz oroitu ez banaz (prisen kontuak badakizu...), baina bihotzez zuri ere eskerrik asko. Nire bizitzan zehar topo egin dodan pertsona guztiei eskerrak, zuek gabe ziur nago ez nintzakela gaur egun naizena izango.

Laburpena

Lan honetan zehar, hiru arazo analitikori irtenbidea eman zaie. Lehena, NMR-aren bidezko azterketa metabolikoa izan zen, muskuiluen esposizio kontrolatuaren ondorioak neurtzeko. Bigarrena nanopartikulen bidezko hipertermia tratamendua ardatz hartuta bi eginkizun bete ziren, alde batetik gibelaren ehunen erresonantzia magnetiko nuklearraren bidezko analisi metabolomikoa eta, bestetik, infragorri (FTIR) eta Raman irudi hiperespektralen aplikazioa ehunak aztertzeko. Azkena, gainazaleko handipeneko Raman espektroskopiaren (SERS) irudi hiperespektrala hazkuntza zelularretan bideratu nahian zenbait nanopartikula eta hauek funtzionalizatzeko organokonplexu aztertu ziren.

Tesiaren lehen atalean, ingurumen analisirako metodologia planteamendu berri bat proposatu da. Horretarako, kimikariok eta biologoak baldintza kontrolatutako esposizioa egiteko elkarlanean jardun genuen. Esperimentu honetan, muskuiluak eta baita lagin biltze pasiboko tresnak hainbat mikrokutsatzaile hidrofoboren eraginpean jarri ziren. Batetik, kutsatzaileen kontzentrazioak neurtu ziren, lagin biltze puntualen bitartez baita lagin biltze pasiboz. Bestetik, muskuiluetan kutsatzaileen kontzentrazioak neurtu ziren. Biologoek euren aldetik, muskuiluen azterketa histopatologikoa egin zuten. Azkenik, NMR-n oinarritutako metabolomika erabili zen muskuiluek kutsatzaileen aurrean zuten

erantzuna aztertzeko. Lau estrategien konbinazioarekin, kausa (kokteleko mikrokutsatzaileen kontzentrazioak eta muskuiluek metatutakoa) eta eragindako efektuen (histologia azterketetan behatutakoa) ulermen handiagoa eskura dezakegu, kutsatzaileek eragiten dituzten aldaketak ulertzeko eta ondorioak azaltzeko metabolomika baliabide erabilgarria dela ondorioztatu genuen. Kutsatzaileen koktelak errute goiztiarra eragin zien muskuiluei eta izan ere, NMR metabolomika erabiliz aldaketa metaboliko nabarienak errute egunean aurkitu ziren.

Tesiaren bigarren atal nagusian, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) jakintza-alor anitzeko kideak (medikuak, fisikoak, kimika ez-organikokoak, organikokoak eta analitikariak) elkartu ginen proiektu baten inguruan, kolon eta ondoesteko minbiziaren gibeleko metastasiari aurre egiteko hipertermia magnetikoaren terapia garatzeko helburuarekin. Proiektu honetan, arginina, glizina eta azido aspartikodun tripeptido (RGD) estekatzaileekin inguratutako nanopartikula magnetikoak animalien odol-zirkulazioan txertatzen dira hipertermia saiakera baino 24 ordu lehenago. RGD estekatzaile ziklikoei esker nanopartikulak gibeleko minbizi zeluletara itsasten dira eta eremu magnetiko alternoen ondorioz arratoien gibeleko tumoreko tenperaturak gora egin eta zonalde hauetan nekrosia lortzen da. Tratamendua zela eta, jakin nahi genuen ia terapia magnetikoak ondorio kronikorik ote zekarkiokeen gaixoari, arratoiari gure kasuan. Horretarako NMR metabolomikan oinarritutako estrategia eta Raman eta FTIR irudi hiperespektralen analisia garatu eta aurrera eraman genuen diagnosiaren eta terapiaren baliabide berritzaile gisa. Batetik, Raman, FTIR eta NMR bidez kolon eta ondesteko minbiziaren eta ehun osasuntsuen profilak determinatu eta bereizi ziren. Gainera, Raman eta FTIR bidez ehunen irudi analisia egiteko metodologia garatu zen. Bestetik, emaitza

metabolikoek, arratoiek tratamendua jaso eta 10 egunera gibeleko mintzak sortutako kalteetatik errekuperatzen direla frogatu genuen.

Tesiaren azken kapituluan, Glasgow-n (Eskozian) egin nuen egonaldian ikasitakoa aurkezten dut. Bertan, Ru eta Os zeukaten organokonplexu bi aztertu ziren. Aldi berean, konposatu hauekin SERS analisian oinarritutako bio-irudiak egitea posible ote zen aztertu zen. Horretarako, urrezko eta zilarrezko SERS egiteko nanopartikulak sintetizatu genituen baita karakterizatu ere. Konposatuen egonkortasuna frogatu zen nanopartikula ezberdinekin eta ur eta zelulen hazkuntza-baldintzetan. Behin baldintza egokienak finkatuta, hamster txinatarren obuluak (CHO) hazi eta gure konposatuekin funtzionalizatutako nanopartikulei esposatu ondoren SERS irudiak eskuratu genituen. Aztertutako konbinaziorik egonkorrena urrezko nanopartikulak Os organokonplexuarekin funtzionalizatuta izan zen. Funtzionalizatutako nanopartikula hauek CHO zelulak bizirik daudela SERS bidezko irudiak egitea baimendu zigun.

Abstract

In this doctoral thesis, three analytical issues were resolved. The first one was the application of nuclear magnetic resonance (NMR) measurements of mussels tissues and biofluids to accomplish an environmental metabolic study. The second was carried out in the framework of the magnetic hyperthermia treatment based on the use of nanoparticles. In this case, we tackled two objectives, the application of Raman and infrared (FTIR) hyperspectral imaging to distinguish healthy and tumour tissues, and the application of NMR based metabolomic analysis of liver and tumour tissues to understand the mechanisms of the treatment. The last one was the study of surface enhanced Raman spectroscopy (SERS) tags to develop hyperspectral imaging in live cell cultures.

In the first chapter, the effects of hydrophobic microcontaminants such as alkylphenols, organophosphorus compounds, organochloride pesticides, phthalates and musk fragances were studied in mussels . The proposed analytical strategy is based on the combination of passive sampling studies, bioconcentration measurements of micropollutants in mussels, environmental NMR metabolomics of two tissues (gonad, muscle) and hemolymph of mussels and histological analysis. By means of this work, it was verified the feasibility of this strategy in controlled conditions with intent to use it in future environmental studies. The micropollutants

mixture was responsible of early spawning in mussels. In fact, the most significant metabolic changes were observed in the same day that spawning took place.

In the second chapter, magnetic nanoparticles induced therapy against colorectal liver metastasis (CLM) project is explained. This project was carried out in collaboration with the Hospital of Galdakao-Usansolo (Basque Country), physicians, physicists, inorganic and organic chemists and doctors from the University of the Basque Country. In this manuscript, we show the methodologies developed to diagnose the presence of CLM by Raman and FTIR imaging, and by using NMR metabolomics. In addition, NMR metabolomics together with chemometrics were used to find out the metabolomic changes and effects produced by the proposed magnetic hyperthermia therapy in rat liver tissue, in both tumour tissues and healthy tissues. We were able to determine the profile of hepatic and tumour tissue with CLM using Raman, FTIR and NMR based methodologies. Moreover, we developed a methodology to do hyperspectral image analysis with Raman and FTIR. Finally, we demostrated that the liver was recovered from the hyperthermia therapy in ten days.

Finally, in the third main chapter, we show the work developed at Strathclyde University (Glasgow, Scotland), in the laboratory of Prof. Duncan Graham. During this stay, osmium and ruthenium organocomplexes synthesized by the group of Prof. Tia Keyes, were used for *in vivo* SERS imaging. In this manuscript we show the steps followed to fulfil this purpose. Different silver and gold nanoparticles functionalised with osmium and ruthenium organocomplexes were prepared and their stability in culture media was studied. The best combination was the gold nanoparticles functionalised with the Os organicomplex. Once the best

combination was chosen, chinese hamster ovary (CHO) cells were exposed to the functionalised nanoparticles to do in vivo SERS imaging to observe the uptake.

Aurkibidea

Irudien zerrenda

Taulen zerrenda

Laburdurak

4-MBA 4-mercaptobenzoic acid

4nOP 4-nonylphenol

4tOP 4-tert-octylphenol

AC Alternating current

acetyl CoA Acetyl coenzyme A

ADP Adenosine diphosphate

AgNPs Silver nanoparticles

AHTN Tonalide

ALS Alternating least squares

ALT Alanine aminotransferase

APEO Alkylphenols ethoxilate

AST Aspartate aminotransferase

ATP Adenosine triphosphate

ATR-FTIR Attenuated total reflectance-Fourier Transform infrared spectroscopy

AuNPs Gold nanoparticles

BBP Benzyl butyl phthalate

BC Before Christ

C Control sample

CARS Coherent anti-stokes Raman scattering

CAS Chemical Abstracts Service

CEB Ethical Committee of Animal Welfare

CHO Chinese Hamster Ovary

CK Creatine kinase

CLM Colorectal liver metastasis

Clor Chlorpyrifos

Clorp Chlorfenvinphos

CluPA Cluster-based Peak Alignment

COW Correlation Optimized Warping

CRC Colorectal cancer

CSI Crime Scene Investigation

CT Computed tomography

CV Cross-validation

DBP Dibutyl phthalate

DCHP Dicyclohexyl phthalate

DDD Dichlorodiphenyldichloroethane

DDE Dichlorodiphenyldichloroethylene

DDT Dichlorodiphenyltrichloroethane

DEHP Bis(2-ethylhexyl)-phthalate

DEP Diethyl phthalate

DESIMS Desorption electrospray ionization mass spectrometry

DIOP Di-isooctyl phthalate

DLS Dynamic Light Scattering

DMP Dimethyl phthalate

DNA Deoxyribonucleic acid

DNOP Di-n-octyl phthalate

DOP Di-octyl phthalate

EB Europar Batasuna, European Union

EM Electromagnetic

EOC Emerging Organic Compound

ESA European Space Agency

FA Fatty acid

FECS Federation of European Chemical Societies

FTIR Fourier transform infrared

FUSLE Focused ultrasound solid-liquid extraction

FWHM Full width at half-maximum

G6P Glucose 6-phosphate

GOT Serum glutamic oxaloacetic transaminase

GPT Glutamate-pyruvate transaminase

H Hepatocellular tissue

H & **E** Hematoxylin and eosin stain

HCH Hexachlorocyclohexane

HHCB Galaxolide

HHT10d Hepatic healthy tissue from a healthy rat 10 days after the hyperthermia protocol without NPs

HHT12h Hepatic healthy tissue from a healthy rat 12 h after the hyperthermia protocol without NPs

HRMS High resolurtion mass spectrometry

HRTC Hepatic healthy tissue from a rat that developed a tumour

HRTHT10d Hepatic healthy tissue from a rat that developed a tumour and 10 days after the hyperthermia protocol without NPs

HRTHT12h Hepatic healthy tissue from a rat that developed a tumour and 12 h after the hyperthermia protocol without NPs

HRTHTSI12h Hepatic healthy tissue from a rat that developed a tumour and 12 h after the saline infusion that emulates the surgical protocol for the NP infusion and the hyperthermia protocol

HSI12h Hepatic healthy tissue from a healthy rat 12 h after the saline infusion that emulates the surgical protocol for NP infusion

HT Hyperthermia therapy

IBeA Ikerketa eta Berrikuntza Analitikoa, Analytical Research and Innovation

icoshift Interval correlated shifting

ICP-MS Inductively coupled plasma mass spectrometry

LC-MS Liquid chromatography coupled to mass spectrometry

LDH Lactate dehydrogenase

LIBS Laser-induced breakdown spectroscopy

LOC Lab on a chip

LSPR Localized surface plasmon resonance

LV Latent variables

lysoPCs Lysophosphatidylcholines

MAE Microwave assisted extraction

MALDI matrix assisted laser desorption-ionization

Matlab MATrix LABoratory

MCR Multivariate curve resolution

MCR-ALS Multivariate curve resolution alternating least squares

MIA Multivariate Image Analysis

MIMASPEC Microstructural, magnetic and spectroscopic characterization of materials with high-tech and biomedical application

MIP Molecularly-imprinted polymers

MLR Multiple Linear Regression

MNPs Magnetic nanoparticles

MRI Magnetic resonance imaging

MRS Magnetic resonance spectroscopy

MS Mass spectrometer

MSC Multiplicative Signal Correction

MSD Marine Strategy Directive

MSPD Matrix solid-phase dispersion

NA Number of aperture

NADH Nicotinamide adenine dinucleotide

NADPH Nicotinamide adenine dinucleotide phosphate

NASA National Aeronautics and Space Administration

NIBS Non-Invasive Back Scatter

NIR Near-infrared spectroscopy

NMR Nuclear magnetic resonance

NP Nanoparticle

OGK Ongarria den gehienezko kontzentrazioak, Environmental Quality Standard (EQS)

OPLS-DA Orthogonal signal correction-partial least squares discriminant analysis

OSC Seinaleen zuzenketa ortogonala, *orthogonal signal correction*

PAH Polycyclic aromatic hydrocarbons

PALS Phase analysis Light Scattering

PBS Phosphate-bufered saline

PC Phosphatidylcholine

PCA Principal Component Analysis

PCB Polychlorinated biphenyl

PCDD Polychlorinated dibenzodioxin

PCP Personal Care Products

PCR Principal Component Regresion

PDCF Polychlorinated dibenzofuran

PDI Polidispersity index

PDMS Polydimethylsiloxane

PEG polyethylene glycol

PES Polysulfones

PET Positron emission tomography

PLE Pressurised liquid extraction

PLS Partial Least Squares

PLS-DA Partial Least Squares discriminant analysis

PLS-R Partial Least Squares Regression

PMAO Poly(maleic anhydride-alt-1-octadecene)

POP Persistent organic pollutant

qRT-PCR Real-time reverse transcription-Polymerase Chain Reaction

RGD Arginine – glycine – aspartic acid

RMSEC Root Mean Square of Calibration

RMSECV Root Mean Square Error of Cross-validation

RNA Ribonucleic acid

RNV Robust Normal Variate

RRS Resonance Raman spectroscopy

SAR Specific absorption rate

SB Stir-bar

SEM Scanning electron microscopy

SERS Surface enhanced Raman scattering

SFE Supercritical fluid

SI Sham surgery using saline infusion

ssDNA single stranded DNA

SIMCA Soft Independent Modeling of Class Analogy

SIMS Secondary ion mass spectrometry

SNV Standard Normal Variate

SOP Standard Operating Procedure

SORS Spatially offset Raman spectroscopy

SPR Surface plasmon resonance

SRS Stimulated Raman spectroscopy

SVD Singular value descomposition

TC Tumour control

TCA Tricarboxylic acid cycle

TEM Transmission electron microscopy

TERS Tip-enhanced Raman spectroscopy

THT10d Tumour tissue 10 days after the hyperthermia protocol without nanoparticles.

THT12h Tumour tissue 12 hours after the hyperthermia protocol without nanoparticles.

TMA Trimethylamine

TMAO Trimethylamine-N-oxide

TMS Tetramethylsilane

TMSPA (trimethylsilyl)propinoic-2,2,3,3,-d4 acid

TSIHT12h Tumour tissue 12 hours after the saline infusion and the hyperthermia protocol without nanoparticles.

UPV/EHU University of the Basque Country

UV Ultraviolet

UV-Vis Ultramore ikuskorrak, *ultraviolet visible*

VAST Variable Stability Scaling

VIP Variables Importance on Partial Least Squares (PLS) projections

WFD Water Framework Directive

XRF X-izpien fluoreszentzia, *X-ray fluorescence*

Sarrera

Chapter 1

Sarrera

1.1 Kimika analitikoa: iragana, oraina eta etorkizuna

Kimika analitikoaren jatorria apala da. Analisi zerbitzu bezala jaio zen, baina zientziako adar garrantzitsu bihurtu da.

1991.urtean, Europako kimikako elkarteen federazioak (FECS) antolatutako *Working Party on Analytical Chemistry* batzarrean lehiaketa bat proposatu zuten. Bertan, kimika analitikoari zegokion definizio onena saritu zen. Lehiaketaren helburua ideien elkartrukea zen, hain zuzen ere, kimika analitikoa jakintzak momentu hartan zientzialariendako zuen esangura ezagutu nahi zen [1]. Asko izan ziren aurkeztutako definizioak, hala ere, guk horien artean bost aukeratu ditugu:

"Hainbat substantzia zein osagai ezagutzeko artea... zeinek helburu tekniko baita zientifikoak dituen prozesu kimikoak abian jartzerakoan sortzen diren galderak erantzutea baimentzen duena... eta kimikako arlo guztietan erabiltzen diren neurketarako metodoak erabiltzen dituena" [2].

3

"Lagin natural edota sintetikoen konposizio kimikoaren determinazioari dagozkion printzipio, lege eta teknikak aztertzen dituen zientzia da" [3].

"Kimika analitikoaren helburua arazo baten ebazpena da, ez lagin batena. Izan ere, azken honi mugatuz gero helburua, kimika analitikoaren funtzioa mugatzen da" [4].

"Analisi kimikoa egitea ez da kimika analitikoaren helburua bere horretan, gizarteko arazoei erantzuna emateko medio bezala ulertu beharra dago" [5].

"Kimika analitikoa neurketetan oinarritutako zientzia da. Arlo askotariko arazoei, zientzia arlokoei baita gizartekoei, erantzuna emateko bitartekoak jartzen ditu. Bere horretan, estrategia eta natura askotariko lanabesak (kimika, fisika, matematika, biokimika, biologia, e.a.) garatuz, optimizatuz eta aplikatuz, hainbat sistemetako informazio (bio)kimikoa eskuratzeko gai da, espazio eta denbora bezalako aldagaiak ere kontutan hartuz" [6].

Instrumentazioa eta neurketak kimika analitikoaren oinarriak dira eta aspaldi aitortu da haien garrantzia [7]. Kimika analitikoa, kimika klasikoaren eta modernoaren garapenerako funtsezkoa izan eta izango da [8]. Spiechiger-Keller andereinoaren esanetan kimika analitikoa existituko ez balitz, berehala asmatu beharko litzateke [9].

Zoritxarrez, askok eta askok kimika analitikoa sasi-zientzia bezala ulertzen dute, kimika analitikoa analisietara bakarrik mugatzen dute. Besteek gutxiesten gaituzten bitartean, guk, kimika analitikariok, aukerak besterik ez ditugu ikusten, beste jakintza arlo batzuetan lan egiten duten kideen arazoak entzun, aztertu eta konponbidea bilatzen diegu, gure balioa agerian jarriz.

Zeresan handia dugu arlo askotan eta gaur egun, aipagarrienak iruditzen zaizkigun arloak bioteknologia, klinika, jakiak, industria, sukaldaritza, ingurumena, auzitegiko medikuntza, arkeologia, kirola eta nekazaritza dira. Guzti hauen artean, bio-medikuntzak puri-purian dagoen gaia da. Jariakin biologikoetan (odol, plasma, gazura edota gernua) izan ditzakegun sustantzia toxikoak detektatzeko edota berezkoak ditugun organismo zein metabolitoen neurketa dira gai entzutetsuenak. Kasu batzuetan klinikako laborategi batean egin beharreko analisiak dira baina beste kasu batzuetan, farmakoen diseinurako eta gaixoen jarraipenerako analisi bereziak izaten dira. Sendagaiak gaixoarengan izango duen eragina aurresatea oso garrantzitsua da eta gero eta ahalegin handiagoak bideratzen ari dira ildo honetan, hasieran *in vitro*-ko azterketak eginez, ondoren *in vivo* egiteko eta azkenik gizakietan aplikatzeko. Argi dago, hiru kasuak konparatzea ezinezkoa dela, ondo baitakigu zelula batek bere horretan estres jakin bateri erantzuna emateko dituen baliabideak organismo batenak baino hamaika aldiz txikiago direla. Baina, beti bezala, nonbaitetik hasi beharra dago, eta pixkanaka arlo honetan ere, gero eta eraginkorragoak gara.

Industrian gure zerbitzuak ezinbestekoak dira, hainbat eta hainbat enpresetan kalitate kontrolerako baliabide analitikoak erabiltzen dira eta horietariko askotan automatizatutakoak izaten dira, aldez aurretik eraikitako modeloetan oinarrituta erantzuna emateko gai diren ekipoak izaten dira.

Urte askotan gizakiok ekonomikoki aberasteko asmo hutsarekin ingurumenean eragindako inpaktua neurrigabekoa izan da. Europar Batasuna (EB) bezalako erakundeak sortutako arazoari erantzuna ematen saiatzen ari dira. Orain arazoa ebatzi beharra dago eta konponbideak bilatu behar dira. Horretan zientzialariok eta kimika analitikariok badugu zertan

lagundu. Ingurumen kimikak erronkak aurkitu ditu arlo honetan, esate baterako, hondakin arriskutsuen kudeaketa.

Nekazaritza arloan, kimika analitikoak garrantzi berezia du zoruko elikagaien kontrolerako eta nola ez, intsektu zein gaixotasun izurriteen aurkako pestiziden kontrolerako. Abeltzaintzan ere, gizakiengan eragin kaltegarria izan ditzaketen eta aski ezagunak diren hormonen eta antibiotikoen arazoen aurrean zurruntasunez jokatu ahal izateko kontrolerako metodologiak garatzeko ardura du.

Gaur egun, nork ez ditu entzun hedabideetan goi mailako kiroletan dopin kontrolen joan etorriak. Aski entzuna da dopinaren aurkako kontrolak dopin sustantzia berrien ostetik doazela, etengabeko lasterketa bailitzan. Hala ere, gero eta sentikorragoak diren teknikak eta metodoak garatzen ari dira eta gidatu gabeko analisiak (*non target*) eta ekortze analisietan oinarritutako (*screening*) metodologien garapenek ere zeresan handia emango dute etorkizunean.

Hedabideek azkenaldian sona handia eman diete auzitegiko analistei *CSI* bezalako saioekin. Errealitatera bueltatuz, egia da gaur egun munduko polizia guztiek laborategiak dituztela auzitegiko analisiak egiteko. Ile, azazkal, odol, pintura, aurkitutako edozein zantzu analisatzeko metodoak etengabe garatu eta balidatu behar dira auzitegietan froga fidagarri bezala aurkezteko.

Arkeologia edo arte ederretan ere badugu zertan lagundu, nahiz eta gure jakintza eremutik urruti daudela iruditu. Hain zuzen ere, azken hamarkadan jauzi garrantzitsua eman dugu arlo hauetan. Mota hauetako laginak bakarrak eta errepikaezinak izaten dira. Beraz, euren balioa eskerga da. Mota hauetako laginak neurtzeko asmoz, gure ikerkuntza taldean adibidez, ohikoak zituzten metodologietatik aldendu

eta metologia ez-suntsikorretara egin zuten salto. Ildo honetan, Raman, infragorri, X-izpien fluoreszentzia (*X-ray fluorescence*, XRF) eta laser bidez sorturiko plasman oinarritutako espektroskopiak (*Laser-induced breakdown spectroscopy*, LIBS) dira nagusi.

Are gehiago, mugiezinak diren ondare kulturalak neurtzeko asmoz, teknika eramangarrien alde postura egin eta arrakasta lortu zuten. Arrakasta hedatuz joan da, ondare historiko eta kulturaleko azterketetatik eguzki sitemako planeten esplorazioan jasotako laginen neurketara. Hori nahikoa ez bazen, azken urte honetan Aeronautika eta Espazioaren Agentzia Nazionala (NASA) eta Europako Espazio Agentziarekin (ESA) elkarlanean gaude Martera bidaliko den erabilera anitzetako ibilgailurako beharrezkoak diren kalibratu sistemetariko bat diseinatzen. Ibilgailu berezi hauek automatikoki baita urrutiko kontrolaz kudea daitezke eta *in situ* analisi mota asko egiteko gai izaten dira, hala nola, Raman, XRF eta LIBS-eko neurketak.

Esan bezala, kimika analitikoak aldaketa handiak jasan ditu historian zehar, gizarteak jasan dituen bezain beste. Aldaketa, eboluzioa da, guztiz positiboa. Gaur egun, gizarteak aho batez metodo analitiko azkar, eraginkor, merke eta *kimika berdean* (*Green Chemistry*) oinarritutakoak eskatzen ditu. Egoera honi ere erantzuna ematen saiatzen gabiltza.

Azkenaldian, gizarteak bioteknologia eta biokimikan duen interesa aipagarria da; prozesu biologikoak eta sendagaien eragina ulertzeko eta jarraitzeko beharrezina handituz doa. Horretarako, analitikariok begiz jota dugu *in situ* eta *in vivo* neurketak ahalbideratzen dituzten sentsoreen garapena. Ildo honetan, aurrerapenen artean, azken hamarkadan, joera berri bat indarrez garatzen ari da, *lab on a chip* (LOC) ideia (ikusi 1.1 Irudia). LOC gailuen bidez, milimetro edo zentimetro eskaz batzuetan

1.1. Irudia: Laborategia txip batean.

laborategi batean egiten ohi diren prozedurak batu nahi dira. LOC gailuen garapena mikrofluidikaren eskutik doa eta azkenaldian jasandako garapena eta aplikazioak asko hazi dira.

Eraginkortasuna analitikariok bi modutan ulertzen dugu. Bata, argi dago arazoa ebaztea dela, baina bestetik, tekniken bereizmena eta detekzio mugen hobekuntza da. Analitikariok muga horiek gainditzeko gau eta egun lan egiten dugu: detekzio-mugen hobekuntza, elementu eta konposatuen banaketaren bereizmen espaziala eta kimikoa. Hau guztia hainbat tekniken akoplamenduari eta aurrerapen teknikoei zor diegu.

Etorkizunean izango ditugun erronkak gizartearen beharrizanekin bat datoz. Adibidez, gizarteak naturari eta lurrari eragindako kalteen hedadura neurtzea eta irtenbideak bilatzea izango da gai nagusietariko bat. Garapenak aberastasun ekonomikoa ekarri digu lehen munduko biztanleoi baina planetarengan izan duen eragina oraindik ez dugu ondo ezagutzen. Biztanleria hazkuntza handia (10 aldiz handitu da planetako biztanleria azken mendeetan), urbanizazio neurrigabea, ingurumen kutsadura larria, berotze globala, klima aldaketa, basamortutze, e.a., azken finean planetako gainazalaren erdia gure gogoaren arabera moldatu dugu ondorioetan pentsatu gabe. Pixkana-pixkanaka badirudi egoera honen erantzukizun politikoa dutenek, dagokien ardura hartzen dabiltzala, eta zientzialarion laguntzaren eske dabiltzala. Gaur egungo gizartea eta industria garapen jasangarrira moldatzea da Europar Batasunaren helburu nagusietariko bat, eta neurri berean, sortutako kalteen eragina neurtu nahi da. Ildo honetan, zeresan handia dute proteomikak, metabolomikak eta genomikak besteak beste. Lanabes hauek, gizarteak sorturiko eta ingurumenera isuritako hondakinek bizidunengan duten eragina aztertzea dute helburu, bakoitza bere neurrian eta esparruan baina elkarren eraginpean.

Esan bezala, kutsatzaileen zerrenda gero eta luzeagoa da eta sailkapena nahitaezkoa bihurtu da (ikusi 1.1, 1.2, 1.3 eta 1.4 Taulak). Alde batetik kutsatzaile organikoak ditugu, eta bestetik metalen kutsadura. Azken talde honetan, ezin ditugu nanopartikulak ahaztu. Nanopartikulek industrian harrera oso ona izan dute aurkezten dituzten propietate bereziengatik, baita medikuntzan ere, farmakoen garraiatzaile bezala adibidez. Baina euren detekzioan eta beste teknika batzuen garapenerako ere funtsezkoak izan dira, adibidez, Raman seinalearen haundipenean (SERS, *Surface Enhanced Spectroscopy)* biosentsore nanometriko bezalaxe.

1.1. Taula: Europar Batasuneko lehentasuneko kutsatzaileen zerrenda I eta ingurumen kalitatearen arabera onargarriak diren gehienezko kontzentrazioak (OGK, μg/L).

CAS zenbakia	Lehentasuneko kutsatzailea	Arriskutsuenak	OGK
15972-60-8	Alaklor		0.3
120-12-7	Antrazenoa	X	0.1
1912-24-9	Atrazina		0.6
71-43-2	Bentzenoa		10
	Brominatutako difeniloeterrak	X	0.5 ng/L ($\sum$)
32534-81-9	Pentabromodifeniloeterra (28, 48, 99, 100, 153 eta 154)		0.5 ng/L ($\sum$)
7440-43-9	Kadmioa eta eratorriak	X	0.08-0.25
85535-84-8	Kloroalkanoak, C10-13		0.4
470-90-6	Klorfenbinfos		0.1
2921-88-2	Klorpirifos (Klorpirifos etiloa)		0.03
107-06-2	1,2-Dikloroetanoa		10
75-09-2	Diklorometanoa		20
117-81-7	Di(2-etilhexil)ftalatoa (DEHP)		1.3
330-54-1	Diuron		0.2
115-29-7	Endosulfan	X	0.005
206-44-0	Fluorantenoa		0.0063
118-74-1	Hexaklorobentzenoa	X	0.05
87-68-3	Hexaklorobutadienoa	X	0.6
608-73-1	Hexakloroziklohexanoa	X	0.03
34123-59-6	Isoproturon		0.2
7439-92-1	Beruna eta eratorriak		1.2
7439-97-6	Merkurioa eta eratorriak	X	0.07
91-20-3	Naftalenoa		2
7440-02-0	Nikela eta eratorriak		4

1.2. Taula: Europar Batasuneko lehentasuneko kutsatzaileen zerrenda II eta ingurumen kalitatearen arabera onargarriak diren gehienezko kontzentrazioak (OGK, μg/L, ingurumen kalitate estandarrak gainazaleko ur kontinentalendako)

CAS zenbakia	Lehentasuneko kutsatzailea	Arriskutsuenak	OGK
25154-52-3	Nonilfenolak	X	0.3
104-40-5	4-nonilfenola	X	0.3
1806-26-4	Oktilfenolak		0.1
140-66-9	4-(1,1',3,3'-tetrametilbutil)-fenola		0.1
608-93-5	Pentaklobentzenoa	X	0.007
87-86-5	Pentaklorofenola		0.04
	Hidrokarburo poliaromatikoak	X	$1.7 \ 10^{-4} \ (\sum)$
50-32-8	Benzo(a)pirenoa	X	$1.7 \ 10^{-4} \ (\sum)$
205-99-2	Benzo(b)fluorantenoa	X	$1.7 \ 10^{-4} \ (\sum)$
191-24-2	Benzo(g,h,i)perilenoa	X	$1.7 \ 10^{-4} \ (\sum)$
207-08-9	Benzo(k)fluorantenoa	X	$1.7 \ 10^{-4} \ (\sum)$
193-39-5	Indeno(1,2,3-cd)pirenoa	X	$1.7 \ 10^{-4} \ (\sum)$
122-34-9	Simazine		1
	Tributil-eztainuzko konposatuak	X	0.0002
36643-28-4	Tributil-eztainu katioia	X	0.0002
12002-48-1	Triklorobentzenoa		0.4
67-66-3	Triklorometanoa (kloroformoa)		2.5
1582-09-8	Trifluralin		0.03

1.3. Taula: 2013.urtean Europar Batasuneko lehentasuneko kutsatzaileen zerrendan gehitzeko konposatuak eta ingurumen kalitatearen arabera onargarriak diren gehienezko kontzentrazioak (OGK, μg/L, ingurumen kalitate estandarrak gainazaleko ur kontinentalendako).

CAS zenbakia	Lehentasuneko kutsatzailea	Arriskutsuenak	OGK
115-32-2	Dikofola	X	$1.3\ 10^{-3}$
1763-23-1	Azido perfluorooktanosulfonikoa eta deribatuak (PFOS)	X	$6.5\ 10^{-4}$
124495-18-7	Kinoxifenoa	X	0.15
	Dioxinak eta antzerakoak	X	$0.008\ \mu$g/Kg totala
74070-46-5	Alkonifenoa		0.12
42576-02-3	Bifenox		0.012
28159-98-0	Zibutrina		0.0025
52315-07-8	Zipermetrina		$8.0\ 10^{-5}$
62-73-7	Diklorbosa		$6.0\ 10^{-4}$
	Hexabromoziklododekanoa (HBCDD)	X	0.0016
76-44-8 / 1024-57-3	Heptakloro/heptakloro Epoxide	X	$2.0\ 10^{-7}\ (\sum)$
886-50-0	Terbutrinoa		0.065
57-63-6	17α-etinilestradiola		$3.5\ 10^{-5}$
50-28-2	17β-etinilestradiola		$4.0\ 10^{-4}$
15307-79-6	Diklofenakoa		0.1

1.4. Taula: Kutsatzaile emergenteen EB-ko zerrendako adibideak.

Familia eta erabilera	kutsatzailea (adibidea)
Farmakoak	
Antibiotikoak	Trimetoprima,eritromizina, linkomizina, sulfametaxozola
Analgesikoak, hanturaren aurkako farmakoa	Kodeina, ibuprofenoa, azetaminofenoa, az. azetilsalizilikoa, diklofenakoa, fenoprofenoa
Psikiatriako farmakoak	Diazepam
Lipidoen erregulatzaileak	Bezafibrate, azidoa klofibrikoa , azido fenofibrikoa
β-blokeatzaileak	Metoprolola, propanolola, timolola
X-izpien kontrastea	Iopromida, iopamidola, diatrizoatoa
Esteroideak eta hormonak	Estradiola, estrona, estriola, dietilstilbestrola
Zaintza pertsonalerako produktuak	
Fragrantziak	Nitro, poliziklikoak eta makroziklikoak diren musketak
Eguzki krematako agenteak	Bentzofenona, metilbentzilidenoa kanforra
Eltxoak uxatzeko produktuak	N,N-dietiltoluamida
Antiseptikoak	Triklosan, Klorofenoa
Sugar-atzeratzailea	Polibrominatuak diren difenil eterrak (PBDEs) Tetrabromo bisfenol A, C10-C13 kloroalkanoak Tris (2-kloroetil)fosfatoa
Industriarako gehigarriak	keladun agenteak (EDTA), sulfonato aromatikoak
Gasolinaren gehiagarriak	Dialkil eterrak, metil-t-butil eterra (MTBE)

Ikerkuntza esparru berriek lanabes berrien beharrizana plazaratzen dute. Emandako garapen metdologiko eta instrumentalek sortu zuten lehen beharrizana, datu eta emaitzen kudeaketa aurreratuago bat izan zen. Tekniken bereizmenean emandako hobekuntzak datu kopuruaren hazkuntza dakar eta ez edonolakoa. Beharrizan honi esker osagai askotariko analisia edo kimiometria jaio zen (1.2 Irudian ikus dezakegu baliabide batzuen sailkapena). Hiru gauza nagusi eskatzen dira datu-analisi eta ereduen eraikuntzan: datuen fidagarritasuna bermatzea, metodo azkarrak izatea eta metodoa sendoa izatea.

1.2. Irudia: Zenbait kimiometria baliabideren sailkapena.

1.2 Tesiaren planteamendua

Erronkak gainditzea da kimika analitikarion eguneroko zeregina. Tesi hau, hain zuzen ere, modu berean planteatu genuen, aurrean genituen erronkak gainditzeko helburuarekin. Bizitzan bezala, tesi honetan garatutako ikerkuntza lana patuaren nahia izan da. Izan ere, gure lankideei lau urte

hauetan sortu zaizkien arazoetariko batzuei irtenbidea bilatzen ahalegindu gara. Onartu behar da edozein putzutan botatzeko aukerak begi onez ikusten ditugula, batzuk behinik behin.

Biologiak, fisikak, medikuntzak, kimika ezorganikoak, kimika organikoak, jakintza arlo guzti hauek, niretzat, pertsonalki, kimika analitikoa dute amankomunean. Hain zuzen ere, lan honetan isladatuta sentitzen dugu kimika analitikarion lanaren funtsa, ilusioa eta abenturarako gogoa, gure lanabes eta sormen analitikoak lanean jarriz arazoei irtenbidea emateko. Esan beharrik ez dago, arazo askori konponbidea biltzeko, neurketarik egin ezean ezin dela erabakirik hartu.

Orain arte lagin biologikoen irudi analisian eta neurketa metabolikoetan eskarmentua izan ez bagenuen ere, gure ikerkuntzako esperientziari eta hainbat teknika analitikoekin genuen eskarmentuari esker, erronka berri bati ekin genion.

Lan honetan zehar, lau urte hauetan egindako lanetatik hiru proiektu nagusi azaltzen ditugu.

Lehen atalean, ingurugiro analisirako metodologia planteamendu berri bat dakargu. Bertan, kimikariok eta biologoek elkarlanean jardun genuen baldintza kontrolatuetan egindako esperimentu bat egiteko. Esperimentu honetan muskuiluak baita laginketa pasiboko tresneria hainbat mikrokutsatzaile hidrofoboen eraginpean jarri ziren. Lehen pausoan, uren kontzentrazioak neurtu ziren, laginketa puntualen bitartez baita laginketa pasiboz. Lan hau, Oscar Posadak, nire lankide batek, egin zuen [10].

Bigarren pausoan, biokontzentrazioak neurtu ziren, Haizea Ziarrusta lankideak garatutako metodo bat aplikatuz [11]. Honekin batera, biologoek muskuiluen azterketa histologikoa egin zuten. Azkenik, erresonantzia

magnetiko-nuklearrean (NMR) oinarritutako metabolomika erabili zen muskuiluek kutsatzaileen aurrean zuten erantzuna aztertzeko.

Gure ustetan, planteamendu honek, itsasertzetan sarri gertatzen diren kutsadura arazoen aurrean azterketa sakonago bat egitea bidea eman zigun. Beraz, itsasertzetan frogatu orduko, baldintza kontrolatuetan aztertzea logikoena zen eta hola egin genuen tesi honetan. Aipatutako lau estrategien konbinazioarekin, kausa (kokteleko mikrokutsatzaileen kontzentrazioak eta muskuiluak metatutakoa) eta eragindako efektuen (histologia azterketetan behatutakoa) ulermen handiago bat eskura dezakegu. Kutsatzaileek eragiten dituzten aldaketak ulertzeko eta ondorioak azaltzeko metabolomika dugu.

Lan honen bigarren atalean, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) jakintza-arlo askotariko kideak (medikuak, fisikoak, kimika ezorganiakoak, organiakoak eta analitikariok) elkartu ginen proiektu interesgarri baten inguruan: kolon eta ondoesteko minbiziaren gibeleko metastasiari aurre egiteko hipertermia magnetikoaren terapia. Proiektu honetan, arginina-glizeril-azido aspartiko tripeptidoa (RGD) estekatzaileekin inguratutako nanopartikula magnetikoak animalien odol-zirkulazioan txertatzen dira hipertermia saiakera baino 24 ordu lehenago. RGD estekatzaile ziklikoei esker, nanopartikulak gibeleko minbizi zeluletara itsasten dira eta eremu magnetiko alternoen ondorioz arratoien gibeleko tumoreko tenperaturak gora egin eta zonalde hauetan nekrosia lortzen da. Tratamendua zela eta, zenbait bidezko galdera zetozkigun burura behin eta berriz:

(i) Lehenengo, ia nanopartikulak bideratzeko estrategiak ondo funtzionatzen ote zuen, eta zonalde bakoitzean metatzen zen nanopartikulen kontzentrazioa zein zen jakiteko, induktiboki

akoplatutako plasma bidezko masa espektrometria (ICP-MS) bidezko neurketak proposatu ziren.

(ii) Hortik sortu zen ehun osasuntsu eta minbiziaren arteko bereizketa antzemateko aukera espektrofotometrikoa. Raman eta FTIR irudi hiperespektralen analisia garatu zen mintzen karakterizazioa burutzeko.

(iii) Azkenik, ia gure terapia magnetikoak ondorio kronikorik ote zekarkion gaixoari jakin nahi zen, arratoiari gure kasuan. Horretarako analitikariok NMR metabolomikan oinarritutako estrategia aurkeztu genuen.

Lan honen azken atalean, Glasgow-n (Eskozian) egin nuen egonaldian ikasitakoa aurkezten dut. Bertan, Ru eta Os zeukaten organokonplexu bi aztertu ziren. Aldi berean, konposatu hauekin SERS analisian oinarritutako bio-irudiak egitea posible ote zen aztertu zen. Horretarako, urrezko eta zilarrezko gainazaleko hobekuntzako Raman espektroskopia (SERS, *Surface enhancement Raman spectroscopy*) egiteko nanopartikulak sintetizatu nituen baita karakterizatu ere. Konposatuen egonkortasuna hainbat nanopartikulekin, ur eta zelulen hazkuntza-baldintzetan frogatu zen. Behin baldintza egokienak finkatuta, hamster txinatarren obuloak hazi eta gure konposatuekin funtzionalizatutako nanopartikulekin aplikatu ondoren SERS irudi hiperespektralak sortu genituen.

Ikusi dezakezuen moduan, gai ezberdinen inguruan hitz egingo dizuet tesi honetan zehar baina gaur egun bor-borrean dauden gaietara hurbiltzeko informazio baliagarria ematen dudala uste dut.

Jakintza-arlo arteko eremuak oso estuak badiruten arren, bide berriak zabaltzen ahalegintzean oztopoak aurkitu ditugu behin eta berriz. Norbere jakintza-arloko adituei ez ezik gainerako taldekideei ere gure ideiak helarazteko komunikazioa landu behar izan dugu, metodologia eta lanabes berriak aurkezteko eta adosteko.

Imagina dezekezuen moduan, tesi honetan zehar datu multzo erraldoiak lortu ditugu gure neurketetan eta ezinbesteko lanabes bihurtu da kimiometria edo osagai askotariko analisia.

1.3 Osagai askotariko analisia lanabes moduan

Naturaren osagaiak anitzak dira eta instrumentu analitikoen erantzunak aldagai askotarikoak dira. Mundu honetan ez duzu ezer aurkituko aldagai bakar batez azal daitekeenik. Pentsa dezagun eguneroko bizitzako adibide batean: eguraldian. Eguraldia azaldu beharko bagenu tenperaturan, airearen presioan, haizearen abiaduran, hodeien presentzian, etab. luze batean pentsa beharko genuke. Era berean laborategian egiten dugun neurketa bakoitzean. Hain zuzen ere, osagai anitzeko analisiak, eragina izan dezaketen aldagai guztiak batera aztertzea baimentzen du eta benetan garrantzitsuak diren aldagaiak agerian jartzen ditu [12]. Hitz bakarrean, lana *errazten* digu.

Gaur egungo instrumentuek zerbait eskaitzen badute, aspaldian ez bezalaxe, zera da, datu eta neurketa asko eman ditzaketela aldi berean edota datuak arin eskaintzeko aukera dutela. Hori dela eta, neurketa instrumental askok oso emaitz oparoak dituzte eta bidean informaziorik ez galtzeko osagai askotariko analisia giltzarri bihurtu da.

Osagai askotariko analisiaren helburuak hiru dira [12]:

(i) *Datuak aztertzea.* Karakterizazio prozesu honetan datuen arteko korrelazioa, desbiderazioak eta ereduan eragin handiena duten aldagaien identifikaziorako baliagarria da. Osagai nagusien analisia dugu (*Principal Component Analysis*, PCA) metodorik ezagunena helburu hau betetzeko.

(ii) *Datuen bereizketa eta sailkapena.* Mota honetariko analisia egitean, datuen taldekatzea aztertzen da eta aldagaien kontzentrazioekiko bereizketa egiteko aukera azaltzen dute.

Bi sailkapen mota erabiltzen dira: gainbegiratua edo gainbegiratu gabekoa. Kasu honetarako ere PCA erabil dezakegu, antzeko klaseen eredugintza independente leuna (SIMCA, *Soft Independent Modeling of Class Analogy*) analisiaren abantailarekin. Kasu honetan klase bakoitza PCA modelu batekin ezaugarrituta dago eta modeluan erabili ez diren laginei dagokien klasea aurreikusteko erabiltzen da.

(iii) *Erregesioa eta iragarpena.* Erregresioaren bitartez bi aldagai multzo erlazionatzen dira: Y aldagaiak eta X aldagaiak, non Y aldagaia, neurtutako X aldagaien menpekoan den. Beraz, mota honetako analisiaren helburua, X aldagai berriei dagokien Y balioak aurresatea da, aldez aurretik eraikitako eredu batean oinarrituta. Osagai nagusien erregresioa (*Principal Component Regresion*, PCR), linea anitzeko erregresioa (*Multiple Linear Regression*, MLR) eta minimo karratu partzialen erregresioa (*Partial Least Squares Regression*, PLS-R) bezalako metodoak erabil ditzakegu helburu hauek lortzeko.

Osagai askotariko analisiak egiteko software egoki bat aukeratu beharra dugu. Programatzeko trebezia izanez gero, sarean badaude oso interesgarriak diren erabilera askeko softwareak, phyton

(https://www.python.org), R (https://www.rstudio.com) edota GNU
Octave (https://www.gnu.org/software/octave/), besteak beste. Era
berean, Matlab (http://es.mathworks.com) ere oso erabilgarria da
programazioa jakinda eta hainbat *toolbox* erabiliz, baina ordainpeko
softwarea dugu hau.

Guk Matlab erabiltzeko aukera izan dugu. Matlab, MATrix
LABoratory-ren akronimoa da eta MathWorks Inc. (Natick,
Massachusetts, USA) korporazioaren softwarea da. Matlab-ek datu
matrizeak kudeatzeko, datuen eta funtzioak irudikatzeko, algoritmoak
erabiltzeko, funtzio eta algoritmo berriak sortzeko, erabiltzaileendako
interfazeak sortzeko (Simulink eta GUIDE lanabesak erabiliz) eta beste
programa eta instrumentu batzuekin elkarrekin lan egiteko baliabideak
sortzeko aukera ematen duen ingurune konputazional berezi bat eskaitzen
du. Esan bezala, Matlab-en aurrez sortutako interfaze eta hainbat
toolbox-etaz (lanabes-kutxa) baliatuz lana erraztu eta arindu egiten da.

Gure kasuan, tesi honetan sortu ditugun datuekin lan egiteko, bi
toolbox erabili ditugu: PLS eta MIA. PLS-Toolbox-ean oinarrizko eta
goi mailako kimiometria analisirako lanabesak aurki ditzakegu. Bertan,
zientzialari eta ingeniariok beharrezkoak ditugun lanabesak aurkitzen
ditugu datuak aztertzeko eta iragarpen ereduak eraikitzeko. MIA-Toolbox-
a PLS-Toolbox-aren luzapen bezala erabili dugu irudi hiperespektralen
kasuan. Irudi hiperespektralak hiru dimentsiotako matrizeak dira, gainazal
batean neurtutako informazio espektrala (Raman, infragorri eta abar
luze batekin eskura daitekeen informazio) batzen dutenak. Beraz, irudi
hiperespketralen datu matrizearen egitura $\mathbf{X}$ (M x N x λ) da, non M
eta N-k informazio espaziala ematen duten bitartean λ-k espektroaren
dimentsioak azaltzen dituen (1.3 Irudia ikusi). PLS-Toolbox-aren bitartez,

irudi hiperespektralen osagai askotariko analisia egin eta behin eredua eraikita dugula, MIA-Toolbox-ari esker, analisiaren irudikapen kimikoa sor dezakegu.

1.3. Irudia: Infragorri irudi hiperespektrak baten egitura.

Datuen aurretratamendua

Datuen aurretratamenduaren helburu nagusiak, datu matrizeko laginak konparagarri bihurtzea eta datuen analisia hobetzea dira. Datuen aurretratamendua erabakigarria da baina kontu handiz egin beharrekoa ere bai [13]. Datuen aurretramenduan pausorik ohikoenak hauek dira: datuen inportazioa, aldagaien aukeraketa, oin-lerroaren zuzenketa,

seinale-zarata erlazioaren hobekuntza, datuen lerrokatzea, aldagaien multzokatzea (*binning*), normalizazioa, eskalatzea, batazbesteko erdiratzea, transformazioak eta gainbegiratutako aurretratamenduak, besteak beste.

(i) Datuen inportazioa Matlabera

Laginen neurketa burutu ondoren, lehenbizi datuak inportatu behar ditugu Matlab-era. Erabilitako instrumentuaren arabera datuen fitxategi-luzapen (mota) jakin batean eskuratzen dira datuak. Matlab-ek baditu inportazeko zenbait funtzio eraikita eta inplementatuta, baina beste kasu batzutan, guk programatu edo idatzi beharko ditugu inportazioa burutzeko gidoiak Matlab-en (*script*). Tesi honetan zehar, Raman eta infragorri irudiak baita erresonantzia magnetiko nuklear (NMR, *nuclear magnetic resonance*) espektroak inportatzeko beharrezkoak ziren gidoiak idatzi behar izan genituen.

(ii) Aldagaien aukeraketa

Tesi honetan jasotako espektroak asko dira, era berean, aldagai kopurua oso handia da. Zorionez badaude seinalerik gabeko guneak edota kanporatu behar diren tarteak espektroetan. Honek aukera ematen digu gune horiek baztertzeko, ereduak errazteko eta datu kopurua gutxitzeko. NMRko espektroetan, adibidez, ur seinalea kendu ahal da 4.7 ppm eta 5.0 ppm tartean. Aurretratamenduaren hasierako pausuetan gomendatzen da tarte hauen ezabapena egitea ondorengo pausuak errazteko eta azkartzeko.

(iii) Oin-lerroaren zuzenketa

Oin-lerroaren aldaketek analisi estatistikoan eta kuantifikazioan eragin oso handia dute eta honen eragina saiheztea oso gomendagarria

da. Oin-lerroaren zuzenketan erabiltzen diren estimazio metodo ohikoenak *detrending* eta minimo karratu asimetrikoen leunketa (*Assymmetric Least Squares Smoothing*, ALS) bidezko estimazioak dira.

Detrending egiterakoan, polinomio bidezko doiketa egin eta laginaren seinaleari polinomio horren kenketa egiten zaio [14]. *Assymmetric Least Squares Smoothing* egiterako orduan, datuen leunketa (*smoothing*) egiten da lehenbizi eta zarata kendutako seinaleen desbiderazio asimetrikoen ponderazioarekin konbinatuz oin-lerroa estimatzen da [15].

Oin-lerroa seinalearen deribatua eginez ere zuzen dezakegu. Izan ere, lehen deribatua egiterakoan oin-lerroaren ordenatu-jatorria ezabatzen da eta bigarren deribatua egiterakoan malda ere ezabatzen da.

(iv) Datuen leunketa edo seinale-zarata erlazioaren hobekuntza

Lagin biologikoen Raman espektroetan adibidez, oso adierazgarria da espektroetan dugun zarata. Hau konposatu biologikoek duten dispertsio (*scattering*) baxuaren ondorioz sortzen da. Seinale-zarata erlazioaren hobekuntza, *smoothing* edo leunketa delako prozedurak aplikatuz lortzen da.

Datuen leunketarako deribatuetan oinarritutako Savitzky-Golay algoritmoa da erabiliena. Deribatuak eginez seinale-zarata erlazioa hobe dezakegu eta doitutako polinomioaren deribatuak kalkulatuz, hau da, Savitzky-Golay algoritmoa aplikatuz, zarata murrizten da. Horretarako leihoaren tamaina eta polinomioaren maila aukeratu beharra dago. Zenbat eta leihoaren tamaina handiagoa izan eta

polinomioaren maila txikiagoa izan, orduan eta datuen leunketa handiagoa lortuko da.

(v) Argiaren dispertsioaren zuzenketa

Argiaren erabilera oinarritzat duten teknika analitiko orok, dispertsioaren edo *scattering*-aren efektuak ditu. Askotan erreferentzia seinale batekiko zuzentzen dira baina badaude zenbait aurretratamendu mota eragin hau zuzentzen dutenak, adibidez, ohiko aldagarritasun normala (*Standard Normal Variate*, SNV), sendoa den aldagarritasun normala (*Robust Normal Variate*, RNV) edo seinale biderkatzailearen zuzenketa (*Multiplicative Signal Correction*, MSC). SNV-ren kasuan adibidez, aldagai bakoitzeko batazbesteko espektroa kalkulatzen da eta berorren desbideratze estandarrarekin zatitzen da (ikusi 1.4 Irudia).

1.4. Irudia: Goian jatorrizko datuak eta behean SNVaren bidez zuzendutakoak.

(vi) Datuen lerrokatzea

Datuen lerrokatzea (*alignment*), NMR espektroen arazo handienetariko bat da, seinaleen posizioan desplazamenduak gertatzen direlako (ikusi 1.5 Irudia). Desplazamentu hauek espektroen artean estandarrak edo jokabide berdineko espektroak aurkitzea zailtzen dute. Bost dira desplazamendu hauen arrazoi nagusiak:

(1) Instrumentazioari dagokienak. Izan ere, gure kasuan, espektro bakoitzaren x ardatza aldatu egiten da espektroz-espektro. Hau da, x ardatzaren desplazamendu kimikoaren lehen balioa espektro bakoitzean aldatu egiten da, balioak parekoak diren arren. Beraz, ardatz bera jarri ahal izateko espektro denei,

espektro baten ardatza kontutan izanda lerrokatuko behar izan genituen gure NMR espektroak.

(2) pH-ren aldaketak.

(3) Gatzen kontzentrazioen aldaketak.

(4) Laginaren kontzentrazio aldaketak (diluzioa).

(5) Ioi jakin batzuen kontzentrazio erlatiboaren aldaketak.

Hala ere, kontuz ibili beharra dugu aldagaien lerrokatzearekin. Kasu batzuetan, seinaleen desplazamenduek konposatu horrengan gertatu den aldaketa bat adierazi ahal dutelako.

NMR-ko espektroen lerrokatzerako 0 ppm adierazten duten estandarrak erabili genituen. Erabili zen disolbatzailearen arabera patroi mota bat aukeratu zen. Kloroformo deuteratuaren kasuan tetrametilsilanoa (TMS) erabili genuen eta ur deuteratuaren kasuan, ostera, azido (trimetilsilil)propinoikoa-2,2,3,3,-d4 (TMSPA) erabili genuen. Beraz, zeroarekiko zuzenduz, desplazamendu globalak zuzen ditzakegu baina ez da nahikoa desplazamendu lokalizatuak zuzentzeko.

Seinale bakoitzak jasan ditzakeen desplazamenduak zuzentzeko erabilienak diren lerrokatze metodoak hurrengoak dira: tarteka korrelazionatutako desplazamenduan (icoshift, *interval correlated shifting*) oinarritutako zuzenketa [16], korrelazioaren optimizazio moldaketa (COW, *Correlation Optimized Warping*) [17] eta taldeetan oinarritutako seinaleen lerrokatzea (CluPA, *Cluster-based Peak Alignment*) [18].

Datuen lerrokatze metodoek bi muga nagusi dituzte. Lehena, arazo teknikoekin guztiz erlazionatuta dago, erabiltzen diren algoritmoak

geldoak direlako eta beharrezkoa den optimizazioa egitea zaila delako. Bigarren muga, datuetan ditugun artefaktuak dira, hau da, oinlerroaren eraginak edota zarata maila altuek lerrokatze metodo gehienen errendimendua okertzen dute.

1.5. Irudia: Goian jatorrizko datuak eta behean lerrokatutako datuak adierazi dira.

(vii) Aldagaien multzokatzea

Aldagaien multzokatzearen (*binning*) bitartez datu matrizearen dimentsioen murrizketa lortu nahi da (ikusi 1.6 Irudia). Matrize datua segmentutan (*bin* edo *buckets* deitzen dira ingelesez) zatitzen

da eta segmentu bakoitzari dagokion azalera kalkulatzen da. Behin multzo bakoitzeko integrazioa egin den, dimentsionaltasun txikiagoa izango duen espektro berria eraikitzen da.

Bi estrategia aurki ditzakegu aldagaien multzokatze honetan. Batetik, segmentu finkoen estrategia dugu. Adibidez, 0.04 ppm tartea ezarri eta tarte horietan integratutako balioekin espektro berria eratuko da. Estrategia honen bitartez ordea, seinaleen gailurrak tartetik ebakiz gero, seinalean aldaketak sor ditzakegu [19]. Horrelako arazoak ekiditzeko, tarte finkoetan oinarritzen ez diren metodoak daude. Aurki ditzakegun hainbat metodoren artean moldaera-adimendun multzokatzea (adaptative-intelligent binning, AI-binning) [20], multzokatze Gaussiarra (*Gaussian binning*) [21], uhin-eraldaketan oinarritutako moldatutako multzokatzea (*adaptive binning using wavelet transform*) [22] eta multzokatze dinamikoa (*Dynamic adaptive binning*) [23] ditugu.

Jatorrizko datuak

Aldagaiak multzokatu ostean

1.6. Irudia: Goian jatorrizko datuak eta behean aldagaiak multzokatu (*binning*) ondorengo datuak adierazi dira.

(viii) **Normalizazioa, eskalatzea, batezbesteko erdiratzea eta gainerako transformazioak**

Datuen aurretratamenduko pausu honen helburua, laginen arteko kontzentrazio orokorren aldaketak kontutan hartzea eta laginak elkarren artean konparagarri bihurtzea da (ikusi 1.7 Irudia). Analisiaren helburuaren araberakoa izango da kontzentrazio globalaren aldakortasunaren eragina kontutan hartu nahi izatea edo ez. Diluzio faktorearen zuzenketa balitz bezala erabil daiteke.

Normalizazioa egiterakoan, orokorrean balio konstante batekin biderkatzen da lerro bakoitza (lagin espektro bakoitza gure kasuan). Konstante hau era askotan kalkula daiteke. Ohiko metodoa integrazioaren bidezko normalizazioa da. Nahi izanez gero, espektro osoaren integrazioaren balioarekin normaliza daiteke edota konposatu jakin baten kontzentrazioa konstantea izaten dela jakinez gero, horrekiko normaliza daiteke.

Datuak eskalatzerakoan, NMR bidezko metabolomikako neurketetan adibidez, metabolito batzuen kontzentrazioa beste batzuena baino askoz handiagoa izaten da eta PCA edo PLS bezalako analisietan metabolito hauek eragin handiagoa izango dute. Metabolito guztiek pisu bera izan dezaten nahi bada, datuak eskalatu behar dira.

Datuak eskalatzerako orduan, batazbesteko erdiratzea, auto-eskalatzea, Paretoren printzipioan oinarritutako eskalatzea, tarte jakin bateko eskalatzea (*range scaling*), aldakortasunaren egonkortasunean oinarritutako eskalatzea (*VAST scaling*) eta eskalatze mailakatua (*level scaling*) bezalako baliabideak ditugu [24].

Batazbesteko erdiratzea (*mean centering*) egiterakoan, kontzentrazio altuan eta baxuan agertzen diren seinaleen aldakortasunak zeroren inguruko balioetara doitzen dira, erdian seinale bakoitzaren batazbestekoa geratzen delarik. Batazbesteko erdiratzea beste normalizazio, eskalatze eta transformazioekin batera erabiltzen da [25].

Eskalatzearen aukeraketan kontuz ibili beharra dago. Adibidez, NMRko espektroak auto-eskalatuko bagenitu, zarataren eragina ereduan oso handia izango litzateke eta ez zaigu hori interesatzen.

Hain zuzen ere, datuak auto-eskalatzerako orduan aldagai guztiei ematen zaie garrantzi bera, aldagai guztien desbideratze estandarra bat bihurtzen delako. Badaude tarteko eskalatze metodoak, Paretoren printzipioan oinarritutako eskalatzea adibidez. Kasu honetan, desbideratze estandarraren ordez desbideratze estandarraren erro karratua erabiltzen da [25].

Eskalatzeaz gain beste transformazio mota batzuk aplika ditzakegu, logaritmoa, Box-Cox eraldaketa edo erro karratua adibidez. Mota honetako eraldaketak sasi-eskalatze bezala ezagutzen dira, balio handiko seinaleen garrantzia murrizteko oso erabilgarriak baitira. Horretaz gain, logaritmoaren erabilpenak desbideratze estandar erlatiboa konstante deneko kasuetan zoriozko zararaten dispertsioa (bariantza gabezia) ere zuzentzen laguntzen du [25].

1.7. Irudia: Datuen eskalatzea eta batazbesteko erdiratzea.

(ix) Gainbegiratutako aurretratamendua

Gainbegiratutako aurretratamendu ezagunena seinaleen zuzenketa ortogonala (*orthogonal signal correction*, OSC) da [26] eta PLS-DA bezalako analisi motan oso erabilia da. PLS bezalako metodoetan X

matrizeak (espektroek) eta bere aldakortasun sistematikoek eragin zuzena dute, ez ordea Y matrizearen erantzunek (kontzentrazioak adibidez). OSC-ren bitartez, X matrizearen aldakortasuna saihestu nahi da eta Y erantzunarekin erlazionatuta ez dauden aldagaiak ezabatzen dira. OSC-k behin eta berriz erakutsi du PLS modeluen iragartzeko ahalmenean hobekuntzak ekartzen dituela, eta ereduetako aldagaiak murriztu egiten dituela, interpretazioa erraztuz.

OSC algoritmoak, lehenbizi, X matrizearen osagai askotariko analisiko lehen osagaia identifikatzen du. Ondoren, *loading*-a biratu egiten du *score*-ak Y blokearekiko ortogonalak izateko. Orduan, PLS eredua eraikitzen du eta bertan X matrizetik *score* ortogonal hauek aurresaten ditu. Era honetan, zenbait artefakturen eragina ere, oinlerroa adibidez, ezabatzeko gai gara.

Osagai nagusien analisia (PCA)

PCA gainbegiratu gabeko analisi mota bat da eta kimiometriako lanabes erabiliena dela esan genezake. PCAk datu multidimentsionalak aztertu eta bariantza maximoa azaltzen duten faktoreak adierazten ditu. Faktore horiek osagai nagusiak deitzen dira (*Principal Components*, PC's). PC bakoitza aldagai originalen konbinazio lineal bat da, eta PC guztien baturak bariantza maximoa azaltzen du (bigarrenak lehenengoak azaltzen ez duena azaltzen baitu). Beraz, PCA analisitik lortutako *score* eta *loadings* direlakoak (ikusi 1.8 Irudia) matrize originalaren interpretazioa errazten dute.

Score-en irudikapen grafikoan, lagin bakoitzaren koordenatu berriak eskuratzen ditugu, eta puntu bakoitzak espektro bat adierazten du gure kasuan. Beraz, espektro guztien laburpena da.

Loading-en irudikapen grafikoan, ereduan eragin handiena duten aldagaiak identifika ditzakegu. *Score*-ak identifikatzeko *loading*-ak erabiliko dira, *loading*-ek zehazten baitute *score*-en kokapena, eta ondorioz, laginen taldekatzea.

1.8. Irudia: PCA analisi baten *score*-ak, non estresatutako eta kontroleko laginak multzokatzen diren eta *loading*-a, non taldekatzea ezaugarritzen dituzten seinaleak identifikatzen diren.

Karratu txiki partzialen erregresioan oinarritutako diskriminazio analisia (PLS-DA)

PLS-DA gainbegiratutako teknika kimiometrikoa da. PLSa X datu matrizea Y erantzun matrizearekin erlazionatzen duen erregresio teknika da. PLS-DA ordea, PLS erregresio teknikaren alternatiba bat da. PLS-DAn PCAren kasuan gertatzen den modu beretsuan, datu matrize originala, jatorrizko aldagaien konbinazio linealak diren aldagai latenteekin azaltzen da (PCak edo LVak).

PLS-DA, PLS erregresio bat da baina erantzuna aldagai kategorikoa da, lagin bakotzaren klasea, guk aurrez adierazi dioguna. Ondorioz, neurtutako aldagaietatik lortuko diren PLSko osagaiek bi konpromiso bete behar

dituzte: erantzunak (klaseak) iragartzeko gai izan behar dira eta klase bakoitzeko laginen neurtutako aldagai guztiak azaltzeko gai izan behar dira.

Eredu sinplifikatuago bat lortzeko asmoz, OPLS-DA erabiltzen da, hau da, OSC zuzenketa aplikatutako PLS-DA da. Azken finean, OSC zuzenketan erantzunak edo klaseak azaltzeko balio ez dituzten aldagaiak baztertzen ditu eredua eraikitzean. Orduan, erantzunekin erlaziorik ez dituzten aldagaiak zarata edo laginen arteko diferentziak eragindako ezberdintasunak izan daitezke. OPLS-DA asko erabiltzen da NMR metabolomikan, adibidez, adina, sexua, dieta, etab. bezalako faktoreen eragina murrizteko.

PLS-DA eta OPLS-DA analisietatik VIPak (*Variables Importance on Partial Least Squares (PLS) projections*) eskuratzen dira. Izan ere, analisi hauetako aldagai garrantzitsuenen proiekzioak dira. VIP balioak, PLSko ereduan aldagaiek duten pisuaren eta azaltzen duten bariantzaren adierazpena dira. VIPak aztertzerako orduan, 1 baino balio altuagoa duten balioak hartzen dira kontutan [27].

Aldagai askotariko kurben bereizmena - txandakako karratu txikiak (MCR-ALS)

MCR-ALS analisia oso erabilgarria da datu hiperespektralen analisian, hau da, gainazal bat ezaugarritzen duten espektroen azterketan eta zenbait konposaturen distribuzioa adierazteko. MCR-ALS analisiak ere, PCAk bezala, modelo matematiko bi-linearra erabiltzen du baina MCRko emaitzek interpretazio errezagoa eskaitzen digute. MCR-ALS analisiaren bitartez aztertutako gainazalean dauden osagai puruak lortuko ditugu, irudiko espektroetatik lortutako konbinazio linealak izango direnak

eta horrekin batera, neurtutako puntu edo pixel bakoitzean duten ugaritasunaren informazioa (kontzentrazioa) lortuko da [28].

MCR-ALS analisirako matrize hiru dimentsionalak, bi dimentsioko matrize bihurtu beharko ditugu eta behin analsiaren emaitzak izanda, puntu bakoitzean osagai bakoitzaren kontzentrazioa irudikatu ahal izango dugu konposizioaren berri izateko. Analisiaren lehen pausua, hasierako osagai nagusi kopurua zehaztea da, balio singularren deskoposizioa (SVD, *singular value decomposition*) eginez. Behin hasierako osagai puru kopurua estimatuta izan den, MCR-ALS analisia egiten da eta analisian zehar iteratiboki lantzen ditu aukeratutako ALS edo arauak espektroendako baita kontzentrazioendako: zenbaki ez-negatiboak, modalitate bakarra (*unimodality*), mugak (*closure*), e.a. Behin prozesua bukatuta, optimizatutako osagai puruak eta kontzentrazioak eskuratuko dira.

1.9. Irudia: MCR analisia.

Aldagai askotariko irudi analisia (MIA)

Irudi analisia gaur egun, gero eta garrantzitsuago bilakatzen ari da. Gainazal bateko hainbat konposaturen distribuzioa jakiteak arlo askotan kritiko bihurtu da, biologian, geologian, kimikan, e.a. [29]. Gure kasuan, lagin biologikoen karakterizazioa egiteko beharrezkoa izango dugu irudi analisia egitea, era askotariko ezaugarri biokimikoak dituzten azalerak identifikatu ahal izateko. Horretarako Matlab-ek baliabide oso interesgarria dauka, MIA-Toolbox-a hain zuzuen ere. Komando sinple bati esker, gure hiru dimentsiotako matrizearen analisi kimiometrikoaren ondorengo *score*-en irudikapena ikus baitezakegu gainazal eran. Horretarako Matlab-en, gure matrizea komando honekin moldatu besterik ez dugu egin behar: myimage = buildimage(data ,[1 2], 1, 'myNewImage'). Ondoren PCA eta PLS-DA bezalako metodoen emaitzak era adierazgarri eta erabilgarri batean irudikatzeko gai izango gara.

Ereduen berrezpena

Eredu estadistikoen berrezpenak, ereduetatik ondorioztatutako emaitzei beharrezkoa duten fidagarritasuna eskeitzen die. Modu honetan, zoriz lortutako ereduak baztertuko dira. Beraz, beharrezkoa da ereduak duen iragarpen ahalmena aztertzea eta balioztatzea.

Eredu bat berrezteko hainbat modu ditugu. Berrezpen gurutzatua (*Cross-validation*, CV) eta berrezpen gurutzatu bikoitza (*double cross-validation*) dira erabilienak. Permutazioa ere berrezteko beste hurbilketa bat dugu. Hala ere, eredutik kanpo utzitako lagin multzoa erabiltzea da iragarpen ahalmena frogatzeko erarik fidagarriena [30].

Eredua eraikitzeko eta berrezteko erabiliko diren datuak, multzo bitan banatzeko, algoritmo bikoitza (*Duplex algorithm*), Kennard-eta-Stone edo

zorizko aukeraketa (*random selection*) erabiltzen dira. Hala ere, berrezpena datu matrize berri batekin egin daiteke, esperimentu independente bat erabiliz adibidez. Era honetako berrezpena egokiena litzateke, baina esperimentazioaren kostua asko igotzen denez ez da asko erabiltzen [30].

Gure kasuan, berrezpen gurutzatua erabiliko genuen ereduen balidazioa egiteko. Berrezpen gurutzatuak bi funtzio erabakigarri betetzen ditu kimiometrian:

(i) Ereduaren konplexutasun optimoa ebaluatzen du.

(ii) Ereduaren iragarpen errendimendua estimatzen du.

Berrezpen gurutzatuaren emaitzen artean, berrezpen gurutzatuaren errore karratuaren batazbestearen errore (RMSECV, *Root Mean Square Error of Cross-validation*) balioa dugu. Balio honek, ereduaren iragarpen ahalmenaren eta egokitasunaren berri emango digu.

Matlab-eko PLS-Toolbox erabiliz berrezpen gurutzatua egiteko bost prozedura ditugu aukeran: veneziar leiho-sareta (*venetian blinds*), aldameneko blokeak (*contiguous blocks*), zorizko azpimultzoak (*random subsets*), bat-kanpora-atera (*leave-one-out*) eta pertsonalizatua (*custom*).

Guk veneziar leiho sareta berrezpen gurutzatua erabili genuen, erabilterreza eta sinplea baita. Gainera, taldeen arteko iragarpenerako gomendagarria da Eigenvetor-en arabera.

Erreferentziak

[1] M. Grasserbauer. Competition "analytical chemistry — today's definition and interpretation". *Fresenius J. Anal. Chem.*, 341(9):A9, 1991.

[2] W. Ostwald. *Wissenchafichen grundlagen der analytischen chemie.* Leipzig, 1894.

[3] S. Arribas F. Burriel and F. Lucena. *Química analítica cualitativa.* Madrid, 1964.

[4] H. A. Laitinen. Analytical chemistry in a changing world. *Anal. Chem.*, 52(6):605A–609A, 1980.

[5] B.G.M. Vandeginste. Optimization of analytical information. *TrAC*, 1(9):210–215, 1982.

[6] Miguel Valcárcel. A modern definition of analytical chemistry. *TrAC*, 16(3):124–131, 1997.

[7] E. Heftmann. *Chromatography-A laboratory handbook of chromatographic and electrophoreric methods, tercera edición.* Van Nostrand, Reinhold, Nueva York, 1975.

39

[8] D.T. Burns and H. Deelstra. Analytical chemistry in belgium: an historical overview. *Microchim. Acta*, 161(1):41–66, 2008.

[9] U.E. Spiechiger-Keller. What is that analytical chemists do? *Fresenius J. Anal. Chem.*, p 283–284, 2001.

[10] O.Posada-Ureta, M. Olivares, L. Zaton, A. Delgado, A. Prieto, A. Vallejo, A. Paschke and N. Etxebarria. Uptake calibration of polymer-based passive samplers for monitoring priority and emerging organic non-polar pollutants in WWTP effluents. *Anal. Bioanal. Chem.*, 408(12):3165–3175, 2016.

[11] H. Ziarrusta, M. Olivares, A. Delgado, O. Posada-Ureta, O. Zuloaga and N. Etxebarria. Multiscreening determination of organic pollutants in molluscs using matrix solid phase dispersion. *J. Chromatogr. A*, 1391:18–30, 2015.

[12] K. H. Esbensen. *An introduction to multivariate data analysis and experimental design, 5th edition.* CAMO ASA, 2001.

[13] T.M.D. Ebbels, J.C. Lindon and M. Coen. Processing and modeling of nuclear magnetic resonance (NMR) metabolic profiles. *Methods Mol. Biol.*, 708:365–388, 2011.

[14] R.J. Barnes, M.S. Dhanoa and S.J. Lister. Standard normal variate transformation and de-trending of near-infrared diffuse reflectance spectra. *Appl. Spectrosc.*, 43(5):772–777, 1989.

[15] P.H.C. Eilers. Parametric time warping. *Anal. Chem.*, 76(2):404–411, 2004.

[16] F. Savorani, G. Tomasi and S.B. Engelsen. icoshift: A versatile tool for the rapid alignment of 1D NMR spectra. *J. Magn. Reson.*, 202(2):190–202, 2010.

[17] T.Skov, F. van den Berg, G.Tomasi and R. Bro. Automated alignment of chromatographic data. *Journal of Chemometrics*, 20(11-12):484–497, 2006.

[18] T.N. Vu, D. Valkenborg, K. Smets, K.A. Verwaest, R. Dommisse, F. Lemière, A.Verschoren, B. Goethals and K. Laukens. An integrated workflow for robust alignment and simplified quantitative analysis of NMR spectrometry data. *BMC Bioinform.*, 12(1):1–14, 2011.

[19] J.L. Izquierdo-Garcia, P. Villa, A. Kyriazis, L. del Puerto-Nevado, S. Perez-Rial, I. Rodriguez, N. Hernandez and J. Ruiz-Cabello. Descriptive review of current NMR-based metabolomic data analysis packages. *Prog. Nucl. Magn. Reson. Spectrosc.*, 59(3):263–270, 2011.

[20] T. De Meyer, D. Sinnaeve, B. Van Gasse, E. Tsiporkova, E.R Rietzschel, M.L De Buyzere, T. C Gillebert, S. Bekaert, J.C Martins and W. Van Criekinge. NMR-based characterization of metabolic alterations in hypertension using an adaptive, intelligent binning algorithm. *Anal. Chem.*, 80(10):3783–3790, 2008.

[21] P.E. Anderson, N.V. Reo, N.J. DelRaso, T.E. Doom and M.L. Raymer. Gaussian binning: a new kernel-based method for processing NMR spectroscopic data for metabolomics. *Metabolomics*, 4(3):261–272, 2008.

[22] R.A. Davis, A.J. Charlton, J. Godward, S.A. Jones, M. Harrison and J.C. Wilson. Adaptive binning: An improved binning method

for metabolomics data using the undecimated wavelet transform. *Chemometr. Intell. Lab.*, 85(1):144–154, 2007.

[23] P.E. Anderson, D.A. Mahle, T.E. Doom, N.V. Reo, N.J. DelRaso and M.L. Raymer. Dynamic adaptive binning: an improved quantification technique for NMR spectroscopic data. *Metabolomics*, 7(2):179–190, 2011.

[24] A. Craig, O. Cloarec, E. Holmes, J.K. Nicholson and J.C. Lindon. Scaling and normalization effects in NMR spectroscopic metabonomic data sets. *Anal. Chem.*, 78(7):2262–2267, 2006.

[25] R.A van den Berg, H.C.J. Hoefsloot, J.A. Westerhuis, A.K. Smilde and M.J. van der Werf. Centering, scaling, and transformations: improving the biological information content of metabolomics data. *BMC Genomics*, 7:142, 2006.

[26] S. Wold, H. Antti, F. Lindgren and J. Öhman. Orthogonal signal correction of near-infrared spectra. *Chemometr. Intell. Lab.*, 44(1–2):175–185, 1998.

[27] U.G. Indahl, K. Hovde Liland, and T. Næs. Canonical partial least squares—a unified PLS approach to classification and regression problems. *J. Chemometrics*, 23(9):495–504, 2009.

[28] J. Felten, H. Hall, J. Jaumot, R. Tauler, A. de Juan and A. Gorzsás. Vibrational spectroscopic image analysis of biological material using multivariate curve resolution–alternating least squares (MCR-ALS). *Nat. Protocols*, 10(2):217–240, 2015.

[29] J.M. Prats-Montalbán, A. de Juan, and A. Ferrer. Multivariate image analysis: A review with applications. *Chemometr. Intell. Lab.*, 107(1):1–23, 2011.

[30] A. Smolinska, L. Blanchet, L.M.C. Buydens and S.S. Wijmenga. NMR and pattern recognition methods in metabolomics: From data acquisition to biomarker discovery: A review. *Anal. Chim. Acta*, 750:82–97, 2012.

Ingurumen metabolomika

Chapter 2

Ingurumen metabolomika

2.1 Sarrera

2.1.1 Ingurumena eta mikrokutsatzaile organiko hidrofobikoak

Airea, ura, lurra eta biota bezalako ingurumen-konpartimentuetan, mota askotariko kutsatzaile organikoak akumulatzen dira. Kutsatzaile hauek jatorri antropogenikoa dute orokorrean: industriako prozesuak, jakien industria, farmakoak, kosmetikoak, e.a. Hain zuzen ere, gizartearen neurri gabeko kontsumoak eta hondakinen kudeaketa desegokiak ingurumen arazo larri bat sortu du. Kutsatzaile hauek ingurumen-konpartimentuetan aztarna mailan aurkitu arren, ingurumen, animali eta gizakiengan eragin ditzaketen ondorioen inguruko ardura asko handitu da azken urteotan [1,2].

Kutsatzaile organiko iraunkorren (*Persistent Organic Pollutants*, POPs) Estokolmoko hitzarmena, giza eta ingurumen osasuna; ingurumenean iraunkorrak, munduan zehar hedatu, gantz-ehunetan metatu eta izakiendako baita ingurumenerako kaltegarriak diren kutsatzaileez

babesteko itun globala da. POP esposizioak osasun arazo larriak eragin ditzake: minbizia, jaiotza-akatsak, ugalketa eta disfuntzio immunologikoa, gaixotasunen aurrean suszeptibilitatea eta nerbio-sistemako kalteak. Arazo global honen aurrean 2001.urtean onartu zen Estokolmoko hitzarmena, eta 2004.urtean jarri zen indarrean (http://chm.pops.int).

Hasiera batean Estokolmoko hitzarmenak hiru motatako 12 POP aintzatetsi zituzten:

1. Pestizidak: aldrin, klordanoa, DDT, dieldrin, endrin, heptakloroa, hexaklorobentzenoa, mirex, toxafeneoa.

2. Industriako kimikoak: hexaklorobentzenoa, bifenilo poliklorinatuak (PCB).

3. Eratorriak: hexaklorobentzenoa, poliklorinatutako dibentzo-p-dioxinak eta poliklorinatutako dibentzofuranoak (PCDD/PCDF) eta PCBak.

Denbora aurrera joan den einean, gero eta konposatu gehiago aintzakotzat hartu dira eta beste zenbait gainbegiratzeko zerrendan daude.

Arazoaren larritasunaren eta kezkaren erantzun gisa kutsatzaileen erregulaziorako araudiak sortu ziren Europar Batasunean batez ere kutsatzaileen kontrolerako eta prenbentziorako. Ur-zuzentaraua (*European Water Framework Directive* , WFD, 2013/39/EU) eta itsas-estrategiaren zuzentaraua (*Marine Strategy Directive*, MSD, 2008/56/ECC) araudi berrienek ingurumenerako kalitate estandarrak ezartzen dituzte.

Azken bi hamarkadetan, kutsatzaile kimikoen azterketak kutsatzaile organiko iraunkorren (POPs) analisira mugatu dira [2–4]. POPen artean, pestizida organokloratuak, hidrokarburo polizikliko aromatikoak (PAH) eta bifenil polikloratuak (PCB) aurki ditzakegu. WFDan ingurumenerako

2.1. Irudia: Uraren kutsadura iturrien irudikapena.

kalitate estandarrak betetzeko kutsatzaileen kontzentrazio mailen mugak hainbat konpartimentutan adierazten dira. Gure gizartean gero eta material eta konposatu berri gehiago sintetizatzen ditugu, industrian, kosmetikoetan, farmako berriak, hormonak, detergenteak, e.a. eta ingurumenera isurtzen dira kutsatzaileak (ikus 2.1 Irudia). Horren eraginez, analisirako eta erauzketarako teknikak berriak garatu behar izan ditugu, gorabideko kutsatzaile organiko (*Emerging Organic Compounds*, EOCs) eta potentzialki arriskutsuak izan daitezkeenak aztertzeko [5, 6]. EOC konposatu hauen kontzentrazioak $ng\,L^{-1}$ edo $\mu g\,L^{-1}$ mailan aurkitzen dira.

Gure lan taldean zenbait konposatu organiko hidrofobikoren eraginak aztertu dira: alkilfenolak, konposatu organofosforatuak, konposatu organokloratuak, musketa polizilklikoak eta ftalatoak (ikusi 2.1 Taula, [19]).

(i) Alkilfenolak

Alkilfenol etoxilatoak (*Alkylphenol ethoxylates*, APEOs) surfaktante ez-ionikoak dira eta detergente edota agente dispertsatzaile bezala oso erabiliak dira [7]. Araztegietan gertatzen den kutsatzaile hauen degradazioaren produktuak are kutsatzaileagoak dira, horien artean noninfenolak (*nonylphenols*, NP) eta oktilfenolak (*octylphenols*, OPs). Hala ere, hauek ere plastifikatzaileen eta detergenteen ekoizpenean erabiltzen dira [8]. Konposatu hauek endokrino disruptiboak dira, hau da, gizakien baita animalien ugalketan eragin negatiboak sortzen dituzte (intersex) [9]. Alkilfenolak WFD-ko POP zerrenden barruan daude eta hauen kontzentrazio mugak hauek dira [10]:

(i) 4-nonilfenola (*4-nonylphenol*,4nOP), itsas-uretan eta gainazaleko uretan, $0.3\,\mu g\,L^{-1}$ eta $2\,\mu g\,L^{-1}$ hurrenez-hurren (urteko batezbestekoa).

(ii) 4-tert-oktilfenola (*4-tert-octylphenol*, 4tOP), itsas-uretan eta gainazaleko uretan, $0.01\,\mu g\,L^{-1}$ eta $0.1\,\mu g\,L^{-1}$ hurrenez-hurren (urteko batezbestekoa).

(ii) Konposatu organofosforatuak

Nekazaritza munduan konposatu organofosforatuak pestizida eta intsektizida moduan oso erabiliak izan dira, erabilterrazak eta eraginkorrak zirelako. Talde honetan klorpirifos (*chlorpyrifos*, Clor), klorfenbinfos (*chlorfenvinphos*, Clorf), atrazina (*atrazine*), malation (*malathion*), paration (*parathion*) eta diazinon moduko konposatuak sailkatzen dira. Uretan aurkezten duten disolbagarritasun altuak, ingurumen konpartimentuetan aurkitzeko aukerak handitzen ditu. Izan ere, ingurumenean egonkorrak dira eta efektu neurotoxikoak

eragiten dituztela uste da [11]. Zenbait ikerketa taldek jadanik konposatu hauen determinazioan eta monitorizazioan lan egiten dute, ikerketa lan batean, adibidez, lur-azpiko uretan neurtu dituzte eta Clorf-en kasuan $0.1 \, \mu\text{g} \, \text{L}^{-1}$-ko balioetatik gora agertzen dira, hau da, ingurmeneko kalitate estandarrak gainditzen ditu [12].

(iii) Konposatu organokloratuak

Hauek ere nekazaritza munduan erabiltzen diren pestizidak dira eta aspalditik ezagunak dira ingurumenean baita giza-osasunean eragin ditzakeen kalteak [13]: kartzinogenesia, immunotoxikotasuna, neurotoxikotasuna, ugal-zikloan eraginak, arnasketa arazoak, e.a. [14].

Konposatu organokloratuak; lindano, hexakloroziklohexanoa (HCH), dikloro difenil trikloroetanoa (DDT) eta eratorriak adibidez, POPen zerrendan azaltzen dira, ingurumeneko konpartimenduetan duen eraginarengatik, akumulatzeko gaitasunarengatik eta kate trofikoan duen biomagnifikazioarengatik [15]. Euren erabilera asko murriztu bada ere, oraindik aurkitzen dira gure lur eta uretan, hain zuzen ere, azaltzen duten iraukortasun eta bioakumulazioarengatik.

(iv) Musketa poliziklikoak

Zaintza pertsonalerako produktuen (*personal care products*, PCPs) ekoizpenak gorakada amaigabe bat bizitzen ari da eta musk poliziklikoak PCP hauen ohiko osagaia izaten dira. PCP-en taldea, kosmetikoak, detergenteak, perfumeak, txanpuak, garbiketarako produktuak eta abar amaigabe batek osatzen dute.

Zenbait ikerkuntza lanetan musketak ingurumenean iraukorrak, bioakumulazio handikoak eta disruptore endokrino bezala jokatzen

dutela uste da [16]. Adibide ezagunenak, galaxolide (HHCB), tonalide (AHTN), zelestolide (*celestolide*, ADBI) eta kasmeran (*cashmeran*, DPMI) dira. HHCB eta AHTN dira merkatutako musketa fragantzien %95a [17].

(v) Ftalatoak

Ftalatoen aplikazioak nonahi agertzen dira: industrian, plastifikatzaile moduan, kosmetikan, e.a. Ftalatoen %87a PVCa ekoizteko erabiltzen da mundu mailan eta eskala handian. Beraz, ez da arraroa ftalatoen kontzentrazio altuak aurkitzea naturan.

Zenbait ftalatoren disolbagarritasuna uretan baxua da, oktanol-ur partizio koefiziente altua dute eta hauek esekiduretan dauden materia partikulatuan edota sedimentutan kontzentratzen dira.

Kate laburreko ftalatoak, dimetil ftalatoa (*dimethyl phthalate*, DMP), dietil ftalato (*diethyl phthalate*, DEP) edota dibutil ftalatoak (*dibutyl phthalate*, DBP), biodegradazio prozesuak jasaten dituzte gainazaleko ur oxigenatuetan. Kate luzekoak ordean, dioktil ftalatoak (*di-octyl phthalate*, DOP) bezalakoak, iraukorragoak dira sendimentuetan.

DMP eta DEPak ez dute bioakumulatzeko joera handirik, BBP (*benzyl butyl phthalate*, BBP) eta DBPk joera handiago aurkezten dute. Hala ere, 2-etilhexil ftalatoak (*bis(2-ethylhexyl)-phthalate*, DEHP), biziklohexil ftalatoak (*dicyclohexyl phthalate*, DCHP), Bi-n-oktil ftalatoak (*Di-n-octyl phthalate*, DNOP) eta biisooktil ftalatoek (*di-isooctyl phthalate*, DIOP) adibidez sedimentu eta biotarekiko afinitate handiagoa dute.

Ftalatoek sedimentuetan bizi diren organismoengan eragin kaltegarria izateaz gain disruptore endokrino moduan ere jokatzen dute [18].

2.1.2   Lagin biltze pasiboa

Lagin biltze pasiboa bi helburu nagusi dituen monitorizazio lanabes berritzailea da:

(i) Denboran zeharreko kutsatzaileen kontzentrazio aldaketak neurtzea.

(ii) Zentinela lana egitea, hau da, bieskuragarri dagoen kontzentrazioaren erakusle izatea. Adibidez, muskuilua bezalako zentinela batek akumulatuko lukeena akumulatuz.

Lagin biltze pasiboaren bitartez monitorizazio baliabide sendo, fidagarri eta merkea lortzea espero da. Baina egia da, oraindik, metodo honen heldutasun puntura heltzeko lanean jarraitu beharra dagoela emaitzak konparagarriak izateko herrialde ezberdinetako laborategi eta laginketetan.

Lagin biltze pasiboan, lagin biltze pasiboko gailuak uretan dauden analitoak fluxu aske baten baitan jasotzen ditu. Prozesu honetan, bi medioen, uretan eta lagin biltze pasiboko materialaren arteko ezaugarriek berebiziko funtzioa jokatuko dute. Akumulazio zinetika hau ekuazio honen bitartez azal daiteke:

$$Cs(t) = Cw\frac{k1}{k2}(1 - e^{-k_2 t}) \qquad (2.1)$$

non Cs, denbora jakin batean (t) lagin biltze pasiborako materialak jaso duen analitoaren kontzentrazioa den. Cw, uraren kontzentrazioa momentu horretan eta k_1 eta k_2 akumulazio eta askapen abiadura konstanteak dira hurrenez-hurren.

2.1. Taula: Esperimentuetako kutsatzaileen zerrenda eta dagokien log K_{ow} eta uretan duten disolbagarritasun balioa.

Kutsatzailea	CAS zenb.	log K_{ow}	disolbag. (mg/L)
Alkilfenolak			
4tOP	140-66-9	5.28	4.82
4nOP	104-40-5	5.28	4.82
Organofosforatuak			
Klorpirifos	2921-88-2	4.96	0.357
Klorfenbinfos	470-90-6	3.81	3.022
Organokloratuak			
α-HCH	319-84-6	3.72	4.044
β –HCH	319-85-7	3.72	4.044
γ-HCH	58-89-9	3.72	4.044
δ-HCH	319-86-8	3.72	4.044
2,4'-DDD	53-19-0	5.87	0.0902
4,4'-DDD	72-54-8	6.02	0.0676
2,4'-DDE	3424-82-6	6.00	0.0729
4,4'-DDE	72-55-9	6.51	0.0265
2,4'-DDT	789-02-6	6.79	0.00917
4,4'-DDT	50-29-3	6.91	0.00731
Triklosan	3380-34-5	4.76	4.621
Musketa poliziklikoak			
HHCB	1222-05-5	5.43	0.490
AHTN	1506-02-1	5.80	0.239
Ftalatoak			
BBP	85-68-7	4.73	0.949
DOP	117-84-0	8.54	0.0004

2.2. Irudia: Lagin biltze pasiboko tresneriak egoera zinetikoan edo oreka egoeran lan egin dezake.

Lagin biltze pasiboaren prozesuan bi egoeratan lan egin daiteke, lehenbizi, egoera zinetikoa dugu eta amaieran, oreka egoera, laginketa pasiboko materiala edo fasea asetu deneko puntua (ikusi 2.2). Orekan dagoeneko puntuan abiadura konstanteak bat egiten dira, eta haien zatiketa K_D partizio konstante bezala ezagutzen da.

$$Cs(t) = CwK_D \qquad (2.2)$$

Jokabide zinetikoan, laginketa pasiboko faseak jasotzen duena denborarekiko zuzenki proportzioana da

$$Cs(t) = CwK_1 t \qquad (2.3)$$

Eta jasotako masa bezala adierazi nahi baldin bada:

$$Ms(t) = CwRst \qquad (2.4)$$

Ms-k, denbora jakin baten ondoren lagin biltze pasiborako fasean aurkitzen den analitoaren masa adierazten du eta Rs (L day^{-1}) lagin biltze abiadura

da.   Azaldutakoarekin honela idatz dezakegu analitoaren xurgapena deskribatzen duen eredua:

$$Ms(t) = CwV_sK_D(1 - exp(\frac{Rst}{K_DV_s})) \tag{2.5}$$

V_s, laginketa pasiboko fasearen bolumena da.

Lagin biltze pasiboa burutzeko hainbat medio ezberdinak edo hainbat fase mota erabiltzen dira gaur egun. Lan honetan, polidimetilsiloxanozko (PDMS) stir-bar (SB), MESCO/Stir-bar (M-SB) eta polietersulfonazko (PES) tuboak erabili ziren. MESCOk, dentsitate baxuko polietilenozko mintza erabiltzen du fase polimerikoa babesteko.

2.1.3   Muskuiluak eta biokontzentrazioa

Organismo urtarrak uraren kalitatearen berri emateko lekuko aproposak dira. Muskuiluak mundu osoan zehar dauden organismoak dira eta euren zentinela erabilera oso zalbalduta dago munduan. Biotak berak duen gantz ehunei esker eta kutsatzaile hidrofobikoek gantzei dieten afinitateari esker, kutsatzaileak akumulatu eta gu neurtzeko gai gara. Horretarako erauzketa teknika eta neurketa teknika egokiak erabili behar dira. Gure kasuan, muskuiluen erauzketa matrize solidoko fase dispertsioaren bidez egin genuen eta neurketarako, masa espektrometro bateri akoplatutako gas kromatografia erabili genuen.

Gaur egun, Soxhlet-a eta ultrasoinu bidezko erauzketak alderatuta geratu dira eta erabilienak diren tekniken artean fluido superkritikoko erauzketa (*supercritical fluid extraction*, SFE), mikrouhin bidezko erauzketa (*microwave assisted extraction*, MAE), presiopeko likido erauzketa (*pressurised liquid extraction*, PLE), ultrasoinu fokatu bidezko solido-likido erauzketa (*Focused ultrasound solid-liquid extraction*, FUSLE) edota

matrize solidoko fase dispertsioa (*matrix solid-phase dispersion*, MSPD) aurki ditzakegu [20], erauzketa denbora laburragoak eta disolbatzaile organikoen kantitate txikiagoak erabiltzen dituztelako.

MSPD teknika, 2000.urtetik erabiltzen den teknika da eta bere prozedura erraza eta fidagarria da. Izan ere, muskuiluetan hainbat kutsatzaileren erauzketan oso erabilia da [21–25].

Azken urteotan, MSPD teknikan ere aurrerapenak eman dira, hala nola, selektiboagoak diren faseak erabiliz: molekularki inprimitutako polimeroak (*molecularly-imprinted polymers*, MIPs) eta karbonozko nanotuboak (MWCNTs). Hala ere, C18 eta Florisil dira oraindik faserik erabilienak.

2.1.4 Metabolomika

Metabolomikak, mintz, zelula eta jariakin biologikoetako metabolitoen konposizioa neurtzeko prozedura analitiko osoa hartzen ditu beregain. Analisi metabolomikoa teknologia omikoen parte da. Teknologia omikoek sistema biologikoen azterketan ezinbesteko baliabide bihurtu dira. Adibidez, genomikak geneak aztertzen dituen bitartean, transkriptomikak RNA mezulariak aztertzen ditu, proteomikak proteinak eta metabolomikak metabolitoak (lipidomika metabolomikaren azpitalde bezala lipidoak aztertzen ditu, ikusi 2.3 Irudia [26]).

2.3. Irudia: Teknologia omikoen eskema, dagokien analisi-helburu eta metodoekin.

Metabolitoak sistema biologikoetan aurkitzen diren pisu molekular baxuko ($<1500\,\text{Da}$) konposatu organikoak dira. Metabolitoak, sistema biologikoetako bide metabolikoetako entzimen erreakzioetako sustratu, tarteko-produktu edota produktuak izan daitezke. Bi metabolito mota bereizi daitezke, endogenoak eta exogenoak. Endogenoak, sistema biologiko naturalaren parte dira, geneek adierazitako entzimen sustratu edota produktuak. Exogenoak ordea, konposatu xenobiotikoen eraldaketa produktuak dira.

Metabolomikaren bidez hiru helburu bete daitezke gaur egun. Alde batetik profil metabolikoa bildu, bestetik hatz marka metabolikoa zehaztu eta azkenik bide metabolikoa argitu.

Metabolomikako analisietan lau teknika dira nagusi, NMR espektroskopia, HRMS (erresoluzio altuko masa espektrometria), LC-MS eta GC-MS.

NMR eta masa espektroskopian (MS) izandako azken aurrerabideei esker sistema biologikoetatik eskura dezakegun informazio kopuruak gora egin du. Profil metabolikoaren determinazioak aplikazio asko ditu gaur egun, horien artean, osasun egoeraren diagnosia, elikadura arloko ikerketak, landareen mekanismoen azterketa, farmakoen garapenean edota ingurugiroko analisietan.

NMR neurketa, nukleo atomikoaren momentu magnetikoaren eta kanpo eremu magnetiko baten arteko erresonantzian oinarritzen da. Nukleo atomikoak eta bere desplazamendu kimikoak, inguruan dituen atomoen eragin zuzena jasatzen du, analitoaren egituraren berri emanez. Fenomeno hau Felix Bloch eta Edward Mills Purcellek deskribatu zuten 1946an eta lan honengatik 1952an Nobel Saria jaso zuten.

Lagin biologikoen analisian erabiliak diren teknika ^{1}H-NMR (protoien ugaritasunarengatik lagin biologikoetan hau da erabiliena), ^{13}C-NMR eta ^{31}P-NMR dira. Dimentsio bakarreko baita biko informazioa eskura daiteke NMRko neurketetan.

NMRko datuen interpretazioak metabolitoen kontzentrazioaz gain egitura kimikoaren informazioa ematen du. Espektroko gailurren azalerak eta garaierak metabolitoen kuantifikazioan erabiltzen dira.

NMR-n oinarritutako metabolomikako analisi bat egiterakoan ehundaka metabolito neur genitzake aldi berean eta modu ez-zuzendu batean (*non-target*). Datuak eskuratutakoan beharrezkoa izango da osagai askotariko analisia egitea hiru helburu nagusi betetzeko:

(i) Klaseen arteko bereizketa eragiten duten aldagaiak bereiztea.

2.2. Taula: NMR, GC-MS eta LC-MS tekniken konparazioa.

Teknika	Abantailak	Desabantailak
NMR	Kuantitatiboa	Ez da sentikorra (LOD=5 µM)
	Ez-suntsikorra	Ekipoaren kostu altua
	Arina (2-5 min lagineko)	Ioiak eta gatzak ezin ditu identifikatu
	Deribatizazio gabe	Protoi gabeko konposatuak ezin detektatu
	Banaketarako teknika gabe	Bolumen handiak neurketarako (0.5 mL
	Konposatu organiko gehientsuenak detektatu	Data baseen eskuragarritasun baxua
	Konposatu berrien identifikazioa	Seinaleen aldagarritasun altua
	Egonkorra, sendoa, teknologia garatua	
	Irudi analsia	
	Automatizatua	
	Likidoak eta solidoak	
	Bizitza luzeko instrumentua	
GC-MS	teknologia garatua, sendoa	Suntsikorra
	Instrumentuaren kostu ertaina	Deribatizazioa beharrezkoa kasu askotan
	Kalibratuarekin kuantitatiboa	Lagin prestaketa luzea
	Lagin tamaina/bolumen ertaina (0.1-0.2 mL	Geldoa (20-40 min lagineko)
	Sentikortasun ona (LOD=1 µg L^{-1})	Irudi analisia ezinezkoa
	Database handia identifikaziorako	Solidoekin ez-bateragarria
	Konposatu organiko gehienak neurtu eta ezorganiko batzuk	Konposatu berrien identifikazioa zaila (ionizazioaren araberakoa)
	Banaketa errepikakorra	
	Ia automatizatu daiteke	
	Gas eta likido laginak	
LC-MS	Sentikortasun ona (LOD=0.5 nM	Suntsikorra
	Konposatu organiko gehienak detektatu eta zenbait ezorganiko	Ekipoaren kostu oso handia
	Lagin bolumen txikiak (10-100 µl)	Geldoa kasu batzutan (5-40 min lagineko)
	Irudi analisia (MALDI edo DESI)	Banaketa
	Injekzio zuzena	Ez da egonkorra
	Metabolomako metabolito gehienak detektatu	Gas lagina ezin
	Ia automatizatua	Konposatu berrien identifikazioa zaila
		Instrumentuaren bizitza laburra (<9 urte)

2.4. Irudia: Metabolomikako prozedura analitikoa.

(ii) Klase bakoitzaren profila lortzea.

(iii) Klaseen sailkapena eta taldekatzeak behatzea.

Behin informazio hori jasota, web gune eta artikuluetako seinaleen desplazamenduetan oinarrituz gure aldagaien identifikazioa burutuko dugu. Behin metabolitoak identifikatu direla, zeintzuk bide metaboliko alteratuta dauden aztertuko dira. Jasotako informazioarekin gaixotasunen diagnosia, toxikologia azterketa, nutrizio-egoera eta estresen efektuen eraginak ulertzeko gai izan gaitezke. Laburbilduz, metabolomikako prozedura analitikoa 2.4 Irudian adierazi dugu.

2.1.5 Histologia

Esan bezala, muskuiluak zentinela organismo moduan erabiltzen dira itsasoko kutsadura monitorizatzeko [27]. Baina batzutan, monitorizazio hauetatik lortutako datu biologikoak eta kimikoak interpretatzea zaila izaten da, batez ere, kontrolpean ez dauden aldagai kopurua oso handia delako. Tenperaturak, gazitasunak, janariaren eskuragarritasunak,

urtaroak, gonaden garapenak, e.a., faktore guzti hauek neurtutako parametroen erantzunean eragin zuzena dute [28]. Nahasgarriak izan daitezkeen faktoreak ezagutzea eta emaitzen interpretaziorako kriterio sendoak izatea erabakigarria da kutsaduraren eraginak identifikatu ahal izateko.

Ahalik eta faktore gehien kontrolpean izateko, laborategiko baldintza kontrolatuetan egindako esperimentua egin genuen, kutsatzaileen koktelaren eraginak ulertu ahal izateko.

Ingurumeneko hainbat kutsatzailek, hala nola, metalek, hidrokarburo aromatikoek, konposatu kloratuek, alkilfenolek, olioak, petrolioak, eta gure itsaso eta itsasbazterretan aurki ditzakegun eta abar luze honen eraginez muskuiluetan gaixotasunak eragiten dituzte [29]. Eraginaren garrantzia ehunen kalteberatasunaren menpekoa izango da baina baita kutsatzailearen natura eta kontzentrazioaren araberakoa. Alterazio biokimikoak zelulen prozesuetan eta funtzioetan eragiten du eta denborarekin aldaketa fisiologiko eta morfologikoak azaltzen dituzte. Aldaketa fisiologiko eta morforlogikoek gaixotasun jakin batzuk identifikatzeko balio dute. Beraz, aldaketa histopatologikoen kausak aldaketa metabolikoetan oinarritzen dira. Hanturako kalteak eta erantzun hiperplastikoak adibidez, organismoaren osasun eskasaren adierazgarri dira.

2.2 Helburuak

Oraindik ez dago ingurumen monitorizaziorako estrategia bateraturik eta jakintza arlo bakoitzean, bakoitzak beren ohiko analisiak egiten jarraitzen ditu. Guk lan honetan, baldintza kontrolatuetan eraikitako esperimentuan, biologoen eta kimikoen elkarlana proposatzen dugu monitorizazio estrategia

bezala. Estrategia honen erabilera frogatu nahi izan dugu lan honetan. Lau zatitan banatzen da gure estrategia:

(i) Lagin biltze pasiboa eta uraren analisi puntualak.

(ii) Muskuiluak zentinela organismo moduan biokontzentrazioaren neurketarako.

(iii) Erresonantzia magnetiko nuklearrean oinarritutako metabolomikako analisiak muskuiluaren hemolinfa, oin eta gonadetan. Lantaldean NMR analisietan oinarritutako ingurumen metabolomika lehen aldiz erabili dugu eta duen erabilgarritasuna frogatu nahi zen lan honetan.

(iv) Histologiako analisiak.

2.3 Materialak eta metodoak

2.3.1 Kontrolatutako baldintzetan burututako esperimentuak

Esperimentuak Euskal Herriko Unibertsitateko Plentziako itsas estazioan (PiE, UPV/EHU) egin ziren baldintza kontrolatuetan. PiEren abantaila nagusienetako bat zera da, itsasoko ur naturalaren emari jarraia dugula da, eta ura hartzeko orduan harearen bidez iragazita lortzen denez, garbi dela onar daiteke.

Bi esperimentu mota planteatu ziren. Lehen esperimentuan, bi egunik behin ur dopatuaren berritzea egin zen (10, 100 eta $1000\,\mathrm{ng\,L^{-1}}$-ko kutsatzaile hidrofoboen koktela erabiliz) eta bigarren motako esperimentuan, kutsatzaile hidrofoboen koktelaren fluxu emari konstantean lan egin genuen. Fluxu emari konstatean bi esperimentu egin genituen, batetik, kutsatzaileen kontzentrazio altua ($100\,\mathrm{ng\,L^{-1}}$) eta nahaste zabala

erabili genuen, eta bestetik, kutsatzaileen maila baxua $(20\,\mathrm{ng}\,\mathrm{L}^{-1})$ eta nahaste sinplea erabili genuen.

(i) Muskuiluen bilketa eta aklimatazioa

Muskuiluak (*Mytilus galloprovincialis*) Mundakako itsasertzean batu ziren. Laginketa puntu hau, Bizkaiko kostaldeko erreferentziako puntu "garbia" da [30]. Laginak 2014ko otsailan eskuz jaso ziren. Batutako muskuiluen tamaina 3.5-4.5 cm tarteko luzeerakoak eta adin tarte antzekoa zutenak batu ziren [31].

Aklimatazioa eta purga $1\,\mathrm{m}^3$-ko tanke batean egin zen eta lehenengo $48\,\mathrm{h}$-tan ez zitzaien janik eman. Esperimentuetan, aurrez iragazitako itsasoko ur naturala erabili zen. Denbora tarte hori pasatu ostean, jan komertziala (Coraliquid, SERA) eman zitzaien aste beteko aklimatazioan.

(ii) 1. esperimentua: bi egunik behin aldatutako ur dopatua

Esperimentu honetan lau talde izan genituen: kontrola, kontzentrazio baxuko taldea $(10\,\mathrm{ng}\,\mathrm{L}^{-1},\,\mathrm{L})$, tarteko kontzentraziokoa $(100\,\mathrm{ng}\,\mathrm{L}^{-1},\,\mathrm{ME})$ eta kontzentrazio altukoa $(1000\,\mathrm{ng}\,\mathrm{L}^{-1},\,\mathrm{H})$. Tanke bakoitzean $30\,\mathrm{L}$ ur, 36 muskuilu eta airea etengabe pasarazten zen (ikusi 2.5 Irudia).

Ura, bi egunik behin aldatzen zen eta zegokion kutsatzaile nahastea gehitzen zen. 14.egunean jaso ziren metabolomikarako laginak (hemolinfa bakarrik). Metabolomikako analisietarako talde bakoitzeko 5-10 muskuilu erabili genituen esperimentu guztietan.

Esperimentuan erabili zen kutsatzaile koktela:

- Alkilfenolak: 4-tert-oktilfenola (4tOP), 4-nonilfenola (4nOP)

- Konposatu organofosforatua: klorpirifos (Clorp), Klorfenbinfos (Clor)

- Konposatu organokloratuak:α-HCH, β –HCH, γ-HCH, δ-HCH, 2,4'-DDD, 4,4'-DDD, 4,4'-DDE, 2,4'-DDT, 4,4'-DDT, Triklosan

- Musketa poliziklikoak: galaxolide (HHCB), tonalide (AHTN)

- Ftalatoak: BBP, DOP

  Esperimentuko behaketa garrantzitsuena: 13.egunean, $1000\,\mathrm{ng}\,\mathrm{L}^{-1}$-ko kutsatzaileen nahasteko tankeko muskuilu denen errutea gertatu zen (kontrolean ez).

2.5. Irudia: 1. esperimentuaren diseinua.

(iii) **2. esperimentua:** $100\,\mathrm{ng}\,\mathrm{L}^{-1}$ **kutsatzaile hidrofoboen koktelaren fluxu emari konstantean**

2.6 eta 2.7 Irudietan ikus dezakegun moduan, hiru tanke erabili ziren esperimentuan: (1) laginketa pasiborako, $50\,\mathrm{L}$; (2) ur kutsatutan muskuiluak jartzeko, (1) tankeari konektatuta zegoena, $65\,\mathrm{L}$ eta (3) kontrolerako muskuiluena, ur emari garbi independenteduna, $65\,\mathrm{L}$.

Muskuiluak 160ko talde bitan banatu ziren, kontrolak eta kutsatutakoak, eta dentsitate altuko polietilenozko 65 L-ko tanketan sartu ziren.

Kutsatzaile nahastea altzairu herdolgaitzez eginiko tankera gehitzen zen lehenbizi. Bertan, laginketa pasiborako karrusela jarri zen. $5\,\mathrm{L\,h^{-1}}$-ko ur emari kontrolatua erabili zen (ponpekin kontrolatua), ura berritzeko eta kutsatzaileen kontzentrazioa $100\,\mathrm{ng\,L^{-1}}$-takoa mantentzeko (1) eta (2) tankeetan.

2.6. Irudia: 2. esperimentuaren eskema.

Esperimentuan erabili zen kutsatzaile koktela:

- Alkilfenolak: 4tOP, 4nOP

- Konposatu organofosforatua: Clorp, Clor

- Konposatu organokloratuak:α-HCH, β –HCH, γ-HCH, δ-HCH, 2,4'-DDD, 4,4'-DDD, 4,4'-DDE, 2,4'-DDT, 4,4'-DDT, Triklosan

- Musketa poliziklikoak: HHCB, AHTN

- Ftalatoak: BBP, DOP

Esperimentuko behaketa garrantzitsuena: Esperimentu honetan 0, 3, 5, 8, 10, 12 eta 14 egunetan laginak jasotzeko asmoa genuen baina esperimentua hasi zen egun berean muskuiluen errute orokorra gertatu zen eta 5 egunetara muskuilu denak hil ziren (kontrolean ez).

2.7. Irudia: 2. esperimentuaren diseinua, laginketa pasiboko karrusela eta erabilitako muskuiluak.

(iv) 3. esperimentua: $20\,\mathrm{ng\,L^{-1}}$ **kutsatzaile hidrofoen koktelaren fluxu emari konstantean**

2. esperimentuko diseinu bera erabili zen 3.esperimentu honetan. Kasu honetan ordea, kutsatzaile nahastearen kontzentrazioa bost aldiz txikioagoa izan zen, $20\,\mathrm{ng\,L^{-1}}$. Gainera, kutsatzaile nahaste sinpleagoa eraibili zen koktelean.

Esperimentuan erabili zen kutsatzaile koktela:

- Alkilfenolak: 4tOP

- Konposatu organofosforatua: Clorp

- Konposatu organokloratuak:α-HCH, 2,4-DDD, 4,4'-DDD, 4,4'-DDE, Triklosan

- Musketa poliziklikoak: HHCB, AHTN

- Ftalatoak: BBP, DOP

Esperimentuko behaketa garrantzitsuena: 3.egunean errutea hasi zen (kontrolean ez).

2.3.2 Lagin biltze pasiboa eta laginketa puntualak

Esan bezela, proiektu hau lan taldean egin genuen eta lagin biltze pasiboari eta lagin biltze puntualari zegokion atala Oscar Posada lankideak egin zuen. Esperimentu honetarako erabilitako metodologia, argitaratuta dagoen artikuluan aurki daiteke [32]. Guk, 2.8 Irudian, laburbildu ditugu pausurik garrantzitsuenak. Lagin biltze pasiboko hiru hurbilketa erabili ziren: PDMS hagatxo birakaria (SB, *stir-bars*), MESCO/hagatxo birakaria (M-SB, MESCO/stir bars) eta PES tuboak (PES). Hagatxo birakarien kasuan, zuzenean neurtu ziren Gerstelean desortzio termikoan oinarritutako

erauzketari esker. PESak, ordea, kimikoki desorbatu eta bolumen handiko GC-MS kromatografiaren bitartez neurtu ziren.

Lagin biltze puntualean (*spot sampling*) SB hagatxo birakariekin egin zen erauzketa laborategian eta hau ere TD-GC-MS bitartez neurtu zen zuzenean.

2.8. Irudia: Lagin biltze pasiboko eta lagin biltze puntualeko prozeduraren eskema.

2.3.3 Muskuiluak eta biokontzentrazioak

Muskuiluek minuturo $30\,\mathrm{mL}$ ur iragazteko gai dira [33] jakiak eskuratzeko eta ura kutsatuta dagoenean kutsatzaileak metatzen dituzte. Hau horrela izanik, muskuiluen biokontzentrazioa kalkulatzeko Haizea Ziarrusta lankideak optimizatutako metodoa erabili genuen [22]. Kasu honetan MSPD erauzketa erabili genuen (ikusi 2.9 Irudia).

Metodoaren optimizatutako baldintzak erabili ziren analisian. $0.3\,\mathrm{g}$ liofilizatutako lagin (15 muskuilutako *pool*-ak egin ziren baldintza bakoitzerako) eta $0.3\,\mathrm{g}$ Florisil dispertsante erabili ziren [22]. Beirazko mortero batean oso ondo nahastu ziren 2 minutuz, guztiz homogenizatuta egon arte. $10\,\mathrm{mL}$-ko beirazko xiringetan polietilenozko frita sartu zen lehenbizi eta ondoren, $0.6\,\mathrm{g}$ silika desaktibatua (labean izan ez duguna),

4 g silika aktibatua eta amaieran, dispersatutako matrizea gehitu ziren. Jarraian, isotopikoki markatuta zeuden trazagarriak gehitu ziren $50 \, \text{ng g}^{-1}$-ko kontzentrazioan dispersatutako matrizera eta azkenik, bigarren frita jarri zen (2.9 Irudian agertzen den era berean). Behin, MSPDrako xiringa prest genuela, 25 mL diklorometanorekin (DCM) eluitu zen, eta eluitutakoa Turbovap LV Evaporator eta nitrogeno gasa erabiliz lurrundu ostean 140 µL n-hexanotan berreratu zen. Erauziak GC-MS bidez neurtu ziren.

Kasu honetan, Agilent HP6890N gas kromatografoa erabili zen Agilent 5973N masa espketrometroari akoplatutakoa eta Agilent 7683 injekzio portu automatikoa erabili zen. 2 µL injektatu ziren banaketa gabeko (*splitless*) bidez, 1.5 min 300 °C-tan Agilent HP−5ms kapilare zutabea (30 m x 0.25 mm, 0.25 µm) erabiliz eta gas eramangarri moduan hidrogenoa erabiliz, 1.3 mL/ min. Labeko tenperatura programa: 60 °C (1 min), 140 °C-ra 30 °C/ min-ko abiaduran, 200 °C 3 °C/ min-ko abiaduraz, 240 °C-ra 5 °C/ min-ko abiaduraz eta azkenik, 30 °C/ min-ko abiaduraz 300 °C lortu arte, eta 10 minutuz mantendu zen tenperatura.

Masa espektrometroa elektroi talka (*electron impact*, EI) bidez neurtu zen, 70 eV-ko potentzial diferetzia aplikatuz. Interfaseko tenperatura 310 °C-tan mantendu zen eta ionizazio iturriaren eta koadrupoloaren tenperatura, 230 °C eta 150 °C-an mantendu ziren hurrenez-hurren.

Neurketa ioi jakin batzuen monitorizazioa eginez burutu zen (SIM, *selected ion monitoring*). Bi ioi erabili ziren konposatu bakoitzaren kasuan monitorizaziorako, kuantifikatzeko erabiliko zena eta konposatua identifikatzeko erabiliko zena.

Datuak tratatzeko eta integrazioa burutzeko Chemstation softwarea (Agilent Technologies) erabili zen.

2.9. Irudia: Muskuiluen biokontzentrazioa neurtzeko prozeduraren eskema, MSPD bidezko erauzketa.

2.3.4 NMR metabolomika

Metabolomikako analisietan laginaren tratamendua pausu kritikoa da. Batez ere, laginaren integritatea mantentzeko kate-hotza ez apurtzea berebizikoa da.

NMR metabolomikarako erabili zen lagin tratamendua aurrez optimizatutako bi lanetan oinarritzen da. Hain zuzen ere, mundu mailan, NMRko ingurumen metabolomikan erreferente den taldekoek eginiko lanetan. Mark Viant ikerlariaren taldekoek, Birmingham-eko unibertsitatekoek, garatutako lan bitan oinarritu genuen gure prozedura [34, 35].

Laginaren aurretratamenduak pausu hauek ditu:

(i) *Muskuiluen ehunak bildu eta gorde*

- Lan honetan muskuiluen jariakina eta 2 ehun aztertu ziren: hemolinfa, oina eta gonada.

- Hemolinfa, muskuilua bizi zegoelarik, muskulutik xiringa batekin jaso zen, (150 μL-450 μL inguru jasotzeko gai izan ginen.

- 25-100 mg masa tarteko oin eta gonadak batu genituen eskalpelo eta artazien laguntzaz. Ahal bezain lasterren nitrogeno likidotan bat-batean izozten genuen.

- −80 °C-tan gorde ziren laginak.

(ii) *Hemolinfaren prestatze lana*

- Hemolinfa liofilizatu egin genuen behin izoztuta zegoela.

(iii) *Ehunen metabolito hidrofiliko eta hidrofoboen erauzketa konbinatua*

- Homogeneizazio hodiak izotzetan mantendu.

- 4 mL metanol hotz eta 0.85 mL Milli Q ur hotz gehitu genuen lagin gramoko, biak 4 °C-tan.

- Aldez-aurretik pisatutako lagina (25-100 mg) gehitu.

- Lagina Precellys-cryolys ekipoa erabiliz homegeneizatu zen. Laginaren arabera egokitu zen denbora esperimentalki, hau da, lagin denaren homogeneizazioa lortu arte: gonada (2x30 s eta 5 s-ko atsedenarekin) eta oina (2x60 s eta 5 s-ko atsedenarekin), kasu bietan SI5000rpm-ko abiaduran.

- Homogeneizatutako lagina Pasteur pipeta erabiliz kromatografiako bial batera pasatu.

- Homogeneizazio hodiei garbiketa pausu bat aplikatu: $1\,\mathrm{mL\,g^{-1}}$ metanol hotz eta $0.9\,\mathrm{mL\,g^{-1}}$ Milli Q ur hotz gehitu.

- $15\,\mathrm{s}$-z nahastu vortex-ean.

- Garbiketa pausukoa ere bial kromatografikora gehitu Pasteur pipeta erabiliz.

- Fase bakarreko puntuko igaropena erauzketaren eraginkortasuna hobetzeko egin zen eta horretarako $2\,\mathrm{mL\,g^{-1}}$ kloroformo ($CHCl_3$) hotz gehitu ziren eta $60\,\mathrm{s}$-z vortex-ean nahasten dira bialak.

- $3\,\mathrm{mL\,g^{-1}}$ $CHCl_3$ eta $2\,\mathrm{mL\,g^{-1}}$ Milli Q ur hotz gehitu eta $60\,\mathrm{s}$-z vortex-ean nahastu ziren bialak. Bitartean, izotzetan manetendu genituen beti laginak.

- Bialak zentrifugatu egin ziren baldintza hauetan: $2000\,\mathrm{g}$, $5\,\mathrm{min}$ eta $4\,°\mathrm{C}$-tan.

- Behin zentrifugatuta $2\,\mathrm{min}$ inguru utzi ziren laginak izotzetan eta hiru fase bereizi ziren: goiko fasea (metanol ur nahastea metabolito polarrekin), tarteko fasea (hondar solidoak biltzen ziren non proteinak eta zenbait gantz edo ehun bil zitezkeen) eta beheko fasea (metabolito hidrofobikoak).

- Pasteur pipeta erabiliz eta kontu handiz bi faseak jaso ziren. Batetik, fase polarra plastikozko saiodietan jaso zen eta bakoitzari $3\,\mathrm{mL}$ MilliQ ur hotz gehitu zitzaizkion eta nitrogeno likidotan bat-batean izoztu ziren. Bestetik, fase hidrofobikoa

kromatografia bial batean bildu zen eta hau ere nitrogeno likidotan bat-batean izoztu zen.

- Fase polarra liofilizatu egin zen eta apolarra Turbovap-ean lurrundu zen. Erauzi biak neurketa egunerarte $-80\,°C$-tan gorde ziren.

(iv) *Hemolinfaren prestaketa NMR neurketarako*

- $550\,μL$ NMR tanpoian berreratu zen, $60\,s$-z vortex-ean nahastuz.

- NMR tanpoia: $100\,mM$ sodio fosfatozko tanpoian, pH 7.4an eta ur deuteratuarekin prestatuta. Erabilitako ur deuteratua Sigma Aldrich etxekoa zen eta $0.5\,mM$ TMSP zeukan, zero seinalea ezartzeko erabili zena.

- Lagina zentrifugatu egin zen $10\,000\,rpm$-tan eta NMRko tubora isuri zen.

(v) *Erauzi polarraren prestaketa NMR neurketarako*

- $550\,μL$ NMR tanpoain berreratu zen, $60\,s$-z vortex-ean nahastuz.

- NMR tanpoia: $100\,mM$ sodio fosfatozko tanpoian, pH 7.4an eta ur deuteratuarekin prentatuta. Erabilitako ur deuteratua Sigma Aldrich etxekoa zen eta $0.5\,mM$ TMSP zeukan desplazamenduaren jatorria ezartzeko. Ondoren, nahastea NMR hodira eraman zen.

(vi) *Erauzi apolarraren prestaketa NMR neurketarako*

- $550\,μL$ kloroformo deuteratutan berreratu zen, $60\,s$-z vortex-ean nahastuz. Kloroformo deuteratua Carlo Erba etxekoa zen eta $0.5\,mM$ TMS zuekan.

NMRko neurketak SGIkerreko (UPV/EHU)ko 500 MHz Bruker AVANCE 5OO espektrometroan egin ziren eta neurketako baldintzak hauek izan ziren:

(i) ^{1}H NMR espektroak neurtzeko parametroak: pultso sekuentzia zgpr (Bruker programa estadarra) erabiliz egin zen, 6 kHz espektro zabalera, ur asetzea 2 s erlaxazio tartean, 64 akumulazio eta 32K datu puntu.

(ii) ^{1}H NMR espektroak tratatzeko parametroak: Fourier Transformatua (FT), biderketa esponentziala (EM, *exponential multiplication*, TMS edo TMSP-rekiko erreferentziatu ziren desplazamendu kimikoak (0 ppm balioa ezarriz), polinomioen bidezko oin-lerroaren zuzenketa eta faseak (zero eta lehen mailakoa) zuzenduz.

Behin NMRko datuak eskuratu ziren, espektroak Matlabera inportatu ziren *RBNMR* funtzioa erabiliz. Sarean Bruker ekipoetarako NMR-ko espektroak inportatzeko gidoia aurki daiteke, Nils Nyberg-ek idatzitako RBNMR funtzioa (http://www.mathworks.com/matlabcentral/fileexchange/40332-rbnmr). Datuen tratamendua PLS-Toolbox-aren bitartez egin zen. Espektroen aurretratamenduan jarraitutako pausuak esperimentalki optimizatu ziren: COW lerrokatzea, aldagaien aukeraketa (ur eta TMS edota TMSParen seinaleak ezabatuz baita daturik gabeko zatiak), logaritmoan (log10) oinarritutako eraldaketa, normalizazioa (espektro osoaren azalera kontutan hartuz), batezbesteko erdiratzea eta seinale ortogonalaren zuzenketa (OSC, OPLS-DA) egiteko.

Bi analisi mota egin ziren, PCA eta OPLS-DA. PCAren bitartez datuen distribuzio eta ezabatu beharreko lagin susmagarriak topatzeko

erabiltzen da. OPLS-DA gainbegiratutako teknika erabiliz ordea, taldeen edo klaseen arteko bereizmena handitu eta VIPak eskuratzea du helburu. Modu honetan lortutako informazioarekin, aldagai garrantzitsuenen seinaleen identifikazioa egin zen. Behin seinale (desplazamendu kimikoak) bereizgarriak zeintzuk diren ezagututa, metabolitoen seinaleen esleipena egiteko sarean aurkitutako data baseetan [36–38] eta artikulu zientifikoetan oinarritu ginen [39–43, 43].

2.10. Irudia: NMR metabolomikako prozeduraren eskema.

2.3.5 Muskuiluen analisi histopatologikoa

Biologoek egindako analisi histopatologikoaren bidez lortutako emaitzik adierazgarrienak jaso ziren. Horretarako laginak fixatu eta parafinatan prestatu ziren. Ondoren, $5\,\mu$m-ko ebakiak egin ziren mikrotomoan, eta albumina erabiliz beirazko portetan jarri ziren. 24 orduz lehortzen izan eta

gero, 37 °C hematoxilina eta eosina tindaketa egin zen. Mikroskopioaren bidez digestio glandulako zelula motak, epitelioa eta egituran aldaketak behatu ziren. Era berean, zelula basofilikoen bolumena, gonaden garapen puntua, etab. behatu ziren.

2.4   Emaitzak eta eztabaida

Atal hau bi zati nagusitan banatu da. Alde batetik muskuiluetako eta biltze pasiboko akumulazioari dagokion emaitzak, eta, bestetik, azterketa metabolikoari dagozkionak.

2.4.1   Muskuiluen akumulazioa eta lagin biltze pasiboaren bidezko jarraipena

Lan esperimental honetan, aldi berean, bi eginkizun bete ziren: SBaren (hagatxo birakaria, *stir-bar*) kalibrazio lagin biltze gisara eta baldintza bereko muskuiluen esposizioa. Horrez gain, beste saiaketa batean muskuiluen esposizioa modu ez-jarraituan egin zen eta han neurtutako akumulazioren berri emango da. Lagin biltze pasiboari dagokionez, SBei dagozkien biltze edo xurgatze abaidurak (Rs, sampling rate, L·egun^{-1}) determinatu ziren bi gazitasun mailetan (%15 eta %30), Posada-Ureta et al. (2016) [44] adierazi zuten bezala eta lortutako Rs-en emaitzak 2.11 Irudian erakutsi dira.

2.11. Irudia: Gazitasun ezberdinetan SB-k duen erantzuna.

2.3. Taula: 1. eta 3. esperimentuetako muskuiluetan neurtutako kutsatzaileen kontzentrazioen laburpena (ng/g), dagokien desbideratze estandarrarekin (esperimentala).

				kontzentrazioa (ng/g)			
Saiaketa	HHCB	AHTN	Clorp	4,4-DDE	2,4-DDD	4,4-DDD	4,4-DDT
$C_{w,1000ngL^{-1}}$	49±7	42±8	31±44	499±44	539±49	713±6	7556±2546
$C_{w,100ngL^{-1}}$	11.2±0.5	6±3	28±5	64±5	71±10	99±11	603±66
$C_{w,10ngL^{-1}}$	9.2±0.4	2.29±0.07	15±6	8.4±0.2	5.91±0.08	7.6±0.3	47.9±0.6
$C_{w,20ngL^{-1},3e}$	6±1	2.1±0.2	11.0±0.4	12.0±0.7	29±1	15±1	22±1
$C_{w,20ngL^{-1},7e}$	8.8±0.4	2.7±0.2	23±2	15.5±0.8	41±1	17.4±0.9	30±2
$C_{w,20ngL^{-1},14e}$	10±1	4±0.2	32±1	17.4±0.6	46±2	20±2	45±5

Lehen eta hirugarren saiaketetan, esposizio ez-jarraitua (1. esperimentua) eta $20\,\mathrm{ng\,L^{-1}}$-ko esposizio jarraituan (3.esperimentuan) hain zuzen, kutsatzaile organikoen kontzentrazioak muskuiluetan determinatu ziren. Emaitza horiek 2.3 Taulan laburbildu dira. Taulan ikus daitekeen bezala, muskuilutan bildutako analitoen kontzentrazioak oso bestelakoak dira. Kontzentrazio maila altuenak DDD, DDE eta DDT kasuetan neurtu ziren.

Lehen saiaketari dagokionez, emaitza guztiak 14 egun esposatuta izan ondorengoak dira eta lortutako kontzentrazioakk ikusita, haien arteko erlazioak aztertu ziren. Izan ere, akumulazioa egoera iraunkorrean gertatuko balitz, hau da denborarekiko jiterik gabe, eta uretako kontzentrazioa 10 aldiz handitu ostean muskuiluetako kontzentrazioak ere modu berean gora egin beharko luke. Hori horrela balitz, kontzentrazio nominalak 10-tik 100-ra edo 100-tik 1000-ra igaro ondoren hamar aldiko jauziak nabarmendu beharko genituzke muskuiluetan eta 10-tik 1000ra, aldiz, 100 aldiko jauzia. Erlazio esperimental guztiak 2.12 Irudian irudikatu dira eta ikus daitekeen bezala, espero ziren jauziak soilik betetzen dira DDT eta haren eratorriekin. Musketak eta klorpirifosekin, ordea, jauziak espero zirenak baino askoz apalagoak izan dira.

2.12. Irudia: 1. esperimentuko kontzentrazioen proportzioak, kontzentrazioa 10 aldiz eta 100 aldiz handitzean, dagokien desbideratze estandarrarekin.

Gertakizun horren arrazoiak ematearren, bi aipa daitezke: alde batetik, muskuiluen akumulazioa egoera iraunkorretik urrun izatea, eta beraz, oraindik nolabait asetu gabe izatea, eta bestetik uretako kontzentrazioa nominala baino baxuagoa izatea hormetan eta hodietan eta abarretan atxikitu ondoren.

Nolanahi ere, 2.4 Taulan bildu dira DDT eta eratorrien log BCF balio esperimentalak, erreferentzietan muskuiluen kasurako aurkitutako balio esperimentalak [45] eta EPA Suite delakoaren bidez estimatutako balio teorikoak (https://www.epa.gov/tsca-screening-tools/epi-suitetm-estimation-program-interface) ChemSpider-tik eskuragarriak. Ikusten denez, balio esperimentalak doiak izan arren erreferentzietatik behera daudela ikus daiteke. Ziurrenik, kasu horietan ere, kontzentrazio nominala

2.4. Taula: 1. esperimentuko kutsatzaileen kontzentrazioaren eta uretako kontzentrazioaren arteko erlazio logaritmikoa (log BCF), dagokien desbideratze estandarrarekin.

	4,4-DDE	2,4-DDD	4,4-DDD	4,4-DDT
$\log \text{BCF}_{1000ng/L}$	2.71 ± 0.04	2.74 ± 0.04	2.86 ± 0.01	3.9 ± 0.1
$\log \text{BCF}_{100ng/L}$	2.81 ± 0.04	2.86 ± 0.06	3.01 ± 0.05	3.79 ± 0.05
$\log \text{BCF}_{10ng/L}$	2.94 ± 0.01	2.78 ± 0.01	2.89 ± 0.02	3.69 ± 0.01
$\log \text{BCF}_{esp}$		3.96-4.42	3.96-4.42	4.37
$\log \text{BCF}_{teor}$	4.31	3.82	3.93	4.62

ez da izan benetakoa eta saiaketa berak ere ura aldizka aldatu beharra zuenez, espero ziren baliotatik urrun aurkitu ziren.

Hala ere, BCF balioen esperimentalen erkaketa egitea ez da horren zuzena, analitoaren ezaugarriak kontuan izateaz gain matrize biologikoaren ezaugarriak kontuan hartu behar baitira. Espeziaren, tamainaren, adinaren, jatorrizko tokiaren, ugalketa mailaren baita urtaro edo garaiaren arabera asko aldatzen da proteina eta lipidoen proportzioa, iragazte ratioa baita izandako elikadura eta faktore guzti hauek zuzenki erlazionatuta daude muskuiluek aurkezten dituzten BCF balioekin.

Hirugarren saiaketatako emaitzek denboraren araberako neurriak zituen eta hortik biokontzentrazio faktoreen (BCF) balio esperimentalak eta denborarekiko mendetasuna aztertzeko aukera eman zuen. Kasu honetan nabarmendu zen 3. egunetik 14 egunerako bitartean balioak gero eta handiagoak egiten zirela modu lineal batean (ikus 2.3Taula), beraz argi zegoen BCF balioak ez zirela egoera iraunkor bati egokitu zitzaizkionak. Hori dela eta, SB-ekin bezalako tratamendua egitea egokitu zen, hau

da, azterketa zinetiko bat bezalakoa non, alde batean SB-ek akumulatzen zituzten erabilitako kutsatzaileak eta geroago muskuiluek ere.

Akumulazioari dagokion eredurik sinpleena atal bakarrekoa da eta haren akumulazioaren adierazpena hauxe da:

$$C_{musk}(t) = C_w.k_1/k_2(1 - e^{(-k_2t)}) \tag{2.6}$$

non C_{musk} eta C_w muskuiluetan eta uretan dauden kontzentrazioak diren, k_1 eta k_2 akumulazioa eta eliminazioaren abiadura konstanteak diren hurrenez hurren eta t igarotako denbora. Egoera iraunkorretik urrun bada eliminazioa arbuiagarria da akumulazioarekiko beraz adierazpen hori honelaxe laburtu ahal da:

$$C_{musk} = C_w.k_1.t \tag{2.7}$$

Azken ekuazio hori aplikatu zen SB-en emaitzetan, non SB bakoitzak akumulatutako masa (ng-tan) determinatu zen esperimentalki eta SB bakoitzak zuen PDMS-ko bolumenetik eta haren dentsitatetik (47 µL eta 965 kgm^3) SB-tako kontzentrazioak ziren. Modu beretsuan muskuiluetako kontzentrazioak kalkulatu zirenez, bien erlazioa (C_{musk} eta C_{SB}) denborarekiko irudikatu zen 2.13 Irudian 2,4-DDD-ren kasuan. Kasu bietan uretako kontzentrazioa (CW) bera eta ezaguna izan zenez, Irudi horietatik kalkulatu genituen akumulazio konstatearen balioak (k1, malda) eta haien balioak 2.5 Taulan bildu dira, doiketaren erregresio koefizienteekin batera.

2.13. Irudia: Zinetikoki SBak eta muskuiluek zuten jokamoldearen erakusgarri 2,4-DDDren adibidea.

Emaitza horietatik bi ondorio atera ditzakegu: alde batetik, muskuiluen akumulazioa askoz mantsoagoa dela SB-renak baino, nahiz eta muskuiluak ura etengabe ponpatzen edo xurrupatzen duen, batezbestez, $1.8\,\mathrm{L}\,\mathrm{ordu}^{-1}$-ko eta SB-batek "ikusten duen" ur bolumena hori baino gutxiago den. Edonola ere, ondo doitzen dira eredu sinple berera, eta beraz, batean antzematen diren ondorioak besteari egokitu ahal zaizkio.

2.5. Taula: Zinetikaren azterketa: muskuiluen eta SBren konparaketa.

	HHCB	AHTN	Clorp	4,4-DDE	2,4-DDD	4,4-DDD
malda muskuilu(k1, egun^{-1})	0.75	0.29	4.28	1.08	3.37	1.05
R^2 muskuilu	1.00	0.95	1.00	1.00	0.98	0.99
malda SB (k1, egun^{-1})	58.43	62.84	62.84	22.05	48.51	
R^2 SB	0.97	0.98	0.99	0.98	0.98	

2.4.2 NMR metabolomika

NMR-ko analisiak hemolinfan, oinetan eta gonadetan egin ziren. Behin metabolito hidrofilikoei dagozkien NMR espektroak jasota kimiometria erabili zen emaitzak aztertzeko. Aldakortasun biologikoa oso handia aurkezten dute muskuilu basatiek. Ingurumenak, genetikak, sexuak, adinak edota elikadurak, faktore natural guzti hauek, ezkutatu egiten dituzte kutsaduraren ondorioak. Hori dela eta, OPLS-DA bezalako analisi baliabideak beharrezkoak izan ziren faktore naturalen eragina murrizteko eta guk eragindako estres faktorearen eragina azaleratzeko. Aipatu beharra dugu, ahal izan den neurrian, metabolitoak desplazamendu kimiko bat baino gehiagorekin esleitzen saiatu garela.

(i) 1. eta 2.esperimentuko hemolinfaren analisia

2.14 Irudian aurkeztutako *score*ak 1. esperimentuko (goikoa) eta 2.esperimentuko (behekoa) hemolinfa laginekin eskuratuko OPLS-DA ereduetatik lortu dira.

1.esperimentuan 2 osagai nagusi (LV) behar izan genituen x matrizearen (aldagaien matrizea) %29.50ko bariantza azaltzeko eta y matrizearen (klaseak) %51.57ko bariantza azaltzeko. 2.6 Taulan adierazi ditugu ereduari dagozkion erroreak, RMSEC eta RMSEV balioak.

1.esperimentuko score-tan (2.14 Irudia, goikoa) bi talde nagusi antzematen dira: kontrola EX2-L klasearekin ($10\,\mathrm{ng\,L^{-1}}$) batera agertzen da eta EX2-ME ($100\,\mathrm{ng\,L^{-1}}$) eta EX2-H ($1000\,\mathrm{ng\,L^{-1}}$) klaseek bigarren taldea osotzen dute.

2.esperimentuko eredua hiru osagai nagusi erabiliz eraiki zen eta x matrizearen %76.36ko bariantza eta y matrizearen %91.57ko

2.6. Taula: 1. esperimentuko muskuiluen hemolinfen ereduaren informazioa, RMSEC eta RMSECV balioak.

	EX2-K (kontrola)	EX2-L ($10\,\mathrm{ng\,L^{-1}}$)	EX2-ME ($100\,\mathrm{ng\,L^{-1}}$)	EX2-H ($1000\,\mathrm{ng\,L^{-1}}$)
RMSEC	0.33	0.38	0.26	0.22
RMSECV	0.49	0.48	0.48	0.38

2.7. Taula: 2.esperimentuko ($100\,\mathrm{ng\,L^{-1}}$ko koktela erabilitako saiaketa) muskuiluen hemolinfen ereduaren informazioa, RMSEC eta RMSECV balioak.

	K1-H (3 egun)	K2-H (5 egun)	K3-H (kontrola)
RMSEC	0.15	0.16	0.01
RMSECV	0.31	0.28	0.15

bariantza azaltzeko gai da. 2.7 Taulan adierazi dira ereduari dagozkion erroreak.

2.esperimentuan lehen osagaiak argi eta garbi desberdintzen ditu kontroleko laginak kutsatutako laginetatik. Bigarren osagaiak, 3.eguneko klasekoak 5.egunekoetatik (denak hil ziren eguna) bereizten ditu.

2.14. Irudia: 1. (goikoa) eta 2.esperimentuetako (behekoa) OPLS-DA ereduetatik eskuratutako *score*ak.

(ii) 3. esperimentua

3. esperimentu honetan hemolinfa, gonada eta oina aztertu ziren. Jariakinaren eta ehunen analisi kimiometrikoa egin ostean, emaitzak bateratu eta interpretazio bateratua ematen saiatu ginen.

Behin metabolitoen seinaleen esleipena egiaztatuta, VIPen tauletan batu genituen zenbait metabolito interesgarri.

Interpretazioa errazteko asmoz, kontrolarekiko erreferentziatu genituen seinaleak eta metabolitoen joerak koloreen bitartez adierazi ditugu beromapetan (*heatmap*).

Hemolinfa

3. esperimentuko hemolinfa laginekin eraikitako OPLS-DA ereduan 3 osagai nagusi erabili ditugu x matrizearen %45.55ko bariantza eta y matrizearen %82.19ko bariantza azaltzeko. 2.8 Taulan adierazi ditugu klase bakoitzari dagozkien RMSEC eta RMSECV balioak.

2.15 Irudiko *score*etan lehen osagaiak 7.eguneko klasea kontrol eta 3.eguneko klasearekiko bereizten ditu. Bigarren osagaiak, kontrola 3.eguneko datuetatik bereizten laguntzen du.

2.9 Taulan adierazitako VIPek agerian uzten dituzte 7. eguneko klasean homarina eta betaina bezalako osmolitoen igoerak. Aipagarria da 3. egunean VIPetan aditzera ematen den aldaketa nabarmena metabolito gehienetan.

2.15. Irudia: 3.esperimentuko hemolinfa datuekin eraikitako OPLS-DA ereduaren *score*ak (goikoa) eta *loading*ak (behekoa).

2.8. Taula: 3.esperimentuko muskuiluen hemolinfen ereduaren informazioa, RMSEC eta RMSECV balioak.

	E1-H	E2-H	E3-H
RMSEC	0.18	0.23	0.13
RMSECV	0.35	0.42	0.39

2.9. Taula: 20ng/L-ko esperimentuan jasotako hemolinfen klaseak ezaugarritzen dituzten VIPetako metabolito garrantzitsuenen aldaketak laburbiltzen dituen taula. Datuak kontrolarekiko erreferentziatuak daude eta euren joerak errezago interpretatzeko koloreztatuak daude (berdez balio txikiagoak eta gorriz altuagoak).

Metabolitoa	ppm	E1_H_kontrola	E2_H_3egun	E3_H_7egun
leuzina/isoleuzina	0,953	1,00	1,34	0,06
metilmalonatoa	1,248	1,00	0,49	1,48
lactate	1,335	1,00	1,42	0,23
alanina	1,485	1,00	1,65	0,12
azetatoa/azetoazetatoa	1,923	1,00	1,91	0,71
ornitina	1,935	1,00	2,73	0,25
pirubatoa	2,402	1,00	0,43	1,55
sukzinatoa	2,424	1,00	1,80	0,10
aspartatoa	2,849	1,00	1,70	0,06
kolina	3,204	1,00	0,82	1,11
glizerofosfokolina	3,222	1,00	1,35	0,92
fosfokolina	3,227	1,00	0,91	1,19
betaina	3,276	1,00	0,44	1,55
glukosa	3,424	1,00	0,42	1,54
glizina	3,557	1,00	2,03	0,23
homarine	4,364	1,00	0,44	1,56
ATP/ADP	8,542	1,00	2,18	0,11

Gonada

Gonadaren kasuan 3.eguneko zenbait lagin baztertu egin behar izan genituen arazo teknikoak medio eta 2 lagin bakarrik ditugu klase hau azaltzeko. 2.16 Irudian ikusten den bezalaxe, OPLS-DA eredua kontrol taldeak distortsionatu egiten du, kontrol taldea gainerako taldeekin konparatuz oso ezberdina delako. OPLS-DA eredu hau eraikitzeko (ikusi 2.16 eta 2.17 Irudiak) PC erabili ditugu, x matrizearen %54.32ko bariantza eta y matrizearen %36.70ko bariantza azaltzeko. 2.10 Taulan erakutsi ditugu eredu honi dagozkien erroreak.

2.17 Irudian eta 2.11 Taulan adierazi dira ereduaren *loading*ak eta VIPak. 3.egunean dugu aldaketarik nabariena, hots, kreatina, α-zetoglutarato, metilmalonato, fosfokreatina, serina eta hidroxibutirato metabolitoen igoera handienak. Guztiak estres egoera honen erantzun gisa azaldu ahal dira.

2.10. Taula: 3.esperimentuko muskuiluen gonaden ereduaren informazioa, RMSEC eta RMSECV balioak.

	E1-G	E2-G	E3-G	E4-G
RMSEC	0.13	0.21	0.44	0.37
RMSECV	0.27	0.23	0.55	0.45

2.16. Irudia: 3.esperimentuko oinen datuekin eraikitako OPLS-DA ereduaren *score*ak.

2.17. Irudia: 3.esperimentuko gonaden datuekin eraikitako OPLS-DA ereduaren *loading*ak (goikoa lehen osagaikoa eta behekoa bigarren osagaikoa).

2.11. Taula: 20 ng/L-ko esperimentuan jasotako gonaden klaseak ezaugarritzen dituzten VIPetako metabolito garrantzitsuenen aldaketak laburbiltzen dituen taula. Datuak kontrolarekiko erreferentziatuak daude eta euren joerak errezago interpretatzeko koloreztatuta daude (berdez balio txikiagoak eta gorriz altuagoak).

Metabolitoa	ppm	E1_G_kontrola	E2_G_3egun	E3_G_7egun	E4_G_14egun
leuzina/isoleuzina	0,961	1,00	3,87	1,82	2,07
balina	0,980	1,00	1,79	1,23	1,30
D-3-Hidroxibutiratoa	1,180	1,00	18,14	5,88	7,41
laktatoa	1,333	1,00	0,61	0,89	0,85
alanina	1,471	1,00	1,76	0,87	0,82
azetatoa/azetoazetatoa	1,915	1,00	13,88	4,66	5,82
glutamate	2,060	1,00	0,68	0,91	0,88
pirubate	2,400	1,00	5,58	2,30	2,71
hipotaurina	2,659	1,00	0,45	0,84	0,80
aspartatoa	2,824	1,00	2,63	1,46	1,61
α-zetoglutaratoa	3,010	1,00	31,55	9,69	12,43
kreatinina	3,023	1,00	30,90	9,51	12,18
zisteina	3,112	1,00	0,47	0,85	0,80
metilmalonatoa	3,177	1,00	6,41	2,54	3,02
kolina	3,203	1,00	0,58	0,88	0,84
glizerofosfokolina	3,226	1,00	0,79	0,94	0,92
fosfokolina	3,226	1,00	0,93	0,98	0,98
betaina	3,277	1,00	1,14	1,04	1,05
taurina	3,284	1,00	5,88	2,39	2,83
glukosa	3,423	1,00	0,38	0,82	0,77
glizina	3,567	1,00	3,97	1,84	2,11
serina	3,845	1,00	15,29	5,07	6,35
fosfokreatina	3,951	1,00	29,64	9,15	11,71
ATP/ADP	8,543	1,00	0,33	0,81	0,75
ezezaguna	8,700	1,00	28,29	8,76	11,21

Oina

Azkenik, oinaren eredua aipatuko dugu. OPLS-DA eredua eraikitzeko 2 PC erabili dira x matrizearen %51.11-ko bariantza eta y matrizearen %49.83ko bariantza azaltzeko. 2.12 Taulan erakutsi ditugu eredu honen erroreak.

2.18 Irudian lehen osagaiak bi talde nagusi banatzen dituela ikus dezakegu, kontrola eta 3.eguneko laginal 7. eta 14.egunekoetatik banatzen ditu. Bigarren osagaiak ordea, kontrola 3.egunekotik eta 7.eguna 14.egunekotik banatzen ditu.

2.20 Irudian OPLS-DA eredutik eskuratutako VIPen tartean eta 2.19 Taulan ikus daitekeen bezala, oinean aurkitutako aldaketa handienak, hots, homarina, kreatina, betainak, kolina, taurina eta azetato metabolitoetan aurkitzen dira.

2.12. Taula: 3.esperimentuko muskuiluen oinen ereduaren informazioa, RMSEC eta RMSECV balioak.

	E1-O	E2-O	E3-O	E4-O
RMSEC	0.21	0.29	0.29	0.37
RMSECV	0.36	0.33	0.40	0.41

2.18. Irudia: 3.esperimentuko oinen datuekin eraikitako OPLS-DA ereduaren *score*ak.

2.19. Irudia: 3.esperimentuko oinen datuekin eraikitako OPLS-DA ereduaren *loading*ak (goikoa lehen osagaikoa eta behekoa bigarren osagaikoa).

2.20. Irudia: 3.esperimentuko oinen datuekin eraikitako OPLS-DA ereduaren VIPen erakusgarri den tartea.

2.13. Taula: 20ng/L-ko esperimentuan jasotako oinen klaseak ezaugarritzen dituzten VIPetako metabolito garrantzitsuenen aldaketak laburbiltzen dituen taula. Datuak kontrolarekiko erreferentziatuak daude eta euren joerak errezago interpretatzeko koloreztatuta daude (berdez balio txikiagoak eta gorriz altuagoak).

Metabolitoa	ppm	E1_P_kontrola	E2_P_3egun	E3_P_7egun	E4_P_14egun
alanina	1,478	1,00	0,63	0,84	0,60
azetatoa/azetoazetatoa	1,921	1,00	5,60	2,99	6,04
ornitina	1,935	1,00	0,48	0,77	0,43
pirubatoa	2,409	1,00	1,54	1,23	1,59
zitratoa	2,639	1,00	1,17	1,07	1,19
hipotaurina	2,667	1,00	0,50	0,78	0,45
aspartatoa	2,809	1,00	2,47	1,64	2,61
asparagina	2,928	1,00	0,97	0,99	0,97
zisteina	3,114	1,00	0,48	0,77	0,43
histidina	3,146	1,00	0,60	0,83	0,56
metilmalonatoa	3,192	1,00	2,72	1,75	2,89
kolina	3,208	1,00	1,07	1,03	1,08
glizerofosfokolina	3,224	1,00	0,58	0,82	0,53
fosfokolina	3,227	1,00	3,00	1,87	3,20
betaina	3,270	1,00	0,53	0,79	0,48
taurina	3,280	1,00	5,43	2,92	5,86
glukosa	3,415	1,00	0,47	0,77	0,42
glizina	3,564	1,00	1,29	1,13	1,32
homarina	4,371	1,00	0,53	0,80	0,49
ATP/ADP	8,548	1,00	0,51	0,79	0,46

Ondorioak ateratzeko orduan lehentasuna eman diegu gonadekin eta oinekin lortutako emaitzei. Izan ere, hemolinfa hartzeko eskarmentu berezia izan behar zen, zeren eta arrisku handia baitzegoen ehunetako zelula asko (obozitoak, muskuluko zelulak, e.a.) jaso izana eta horiek zorizko artefakto asko sar zitzakeela uste dugu. Gainera jasotako hemolinfa bolumenean zaila da errepikakorra izatea. Honetaz gain, 14.eguneko hemolinfa laginekin arazoren bat izan genuen. VIPak aztertzerakoan 14.eguneko eta kontroleko VIPak oso antzekoak zirela ohartu ginen, nahiz eta laginen kudeaketa eta tratamenduan arazorik antzeman ez genuen, beraz, 14.eguneko taldea eredutik kentzea erabaki genuen.

Aldaketa handiena, 3.egunean ikusten dugu, oinean, gonadan zein hemolinfan. Aldaketa nabarmenena hala ere, gonadan antzeman zen, ondoren oinean eta azkenik hemolinfan. Aipatu beharra dugu, 3.egunean errutea gertatu zela eta gertaera honek azal ditzake egun honetan bereziki antzemandako aldaketa metabolikoak.

Kontrolarekin konparatuz kutsatzaileen eraginpean izandako laginek, hidroxibutirato, azetato, taurina, kreatina eta α-zetoglutaratoaren mailetan igoera handiak aurkeztu zituzten. Hidroxibutirato, azetato eta kreatina mailen igoera, hantura orokorraren adierazle metabolikoak izaten dira, ugaztunetan behinik behin hipertermiaren kapituluan azalduko dugun bezalaxe. Aminoazidoen kontzentrazioek ere gora egin zuten baina glutamatoa, zisteina, glizina eta histidinaren mailak jaitsi egin ziren oinean eta baita gonadan. Alanina eta aspartatoaren kasuan ordea, oinean bakarrik antzematen da metabolito hauen jaitsiera.

3.egunean ATP/ADPren mailan jaitsiera nabarmenena aurkitu genuen, gonadan bereziki. Ziur aski, energia kontsumo hau errutearekin

erlazionatuta dago. Energia beharrizan hau agerian dago glukosaren mailan jaitsiera ere antzeman baitugu.

Oro har, esposizioak aldaera nabariak ekarri ditu muskuiluetan. Alde batetik, kutsatzaileen metaketa garbia eta bestetik aldaketa metabolitko eta fisiologikoak.

2.4.3   Analisi histopatologikoa

Muskuiluetan antzeman zen ondoriorik larriena, errute goiztiarra izan zen. Argi ikus daiteke 2.21 Irudian, nola muskuiluak obozitoak askatu zituen. Muskuiluak estres egoera handian daudenean, errutea dute erantzun ohiko bat, egoera aktibo batetik pasiboago batera joateko bizirauteko asmo bakarrarekin.

2.21. Irudia: Gonaden hematoxilina eta eosina tindaketaren ondoren lortutako irudiak, gonaden garapenean aldaketa nabarmena dugu, errutea.

2.5   Ondorioak

Laginketa pasiboaren bitartez itsasadarretako kutsatzaileen kontzentrazioak kalkulatzeko gai izan gaitezkela frogatu dugu, ur gezatan baita gazitan duten eragikortasuna frogatu delako. Horretarako laginketa pasiboa oso egokia da baina muskuiluak akumulatutakoarekin alderatuz gero, laginketa pasiboaren bitartez neurtutako kontzentrazioak ez datoz bat. Erreza da azaltzea azken gertaera hau. Laginketa aktiboan milaka mekanismo eta bide metabolikoren menpe daude organismoan sartutako kutsatzaileak eta eraldaketa eta kanporatzeak jasan ditzake. Muskuiluak aktibo daudenean 30 mLur/minko iragazten dute, bitartean, laginketa pasiboko tresneria inguruko urarekin izango du kontaktua (kontaktu hau handitzeko karrusel birakarian kokatu dira). Bi neurketa mota hauetatik, informazio osagarria eskuratzen dugu, laginketa pasiboak argi erakutsi baitu, oso aproposa dela denboran zehar gertatutako kutsatzaileen aldaketak neurtzeko. Gainera, ur oso kutsatua analisatu beharko bagenu, muskuiluek ez lukete ezertarako balio izango, hil egingo zirelako eta kasu horietan laginketa pasiboa oso interesgarria litzateke.

Muskuiluen analisiari dagokionez, 2,4-DDD konpasatuan aurkitu dira kontzentrazio altuenak. Uretako kutsatzaile honen kontzentrazioa igoterakoan, proportzionalki igoten da muskuiluko kontzentrazioa. Badirudi, analitoek biokontzentrazioa eta log K_{ow} balioen artean korrelazioa dagoela, zenbat eta logK_{ow} balio altuagoa izan, gehiago akumulatzen da muskuiluan.

Metabolomika oso lanabes erabilgarri eta interesgarria da eta gure sistemaren "osasun" egoeraren berri ematen digu. Gainera histopatologiako emaitzekin alderatuz informazio gehiago lortzeko gai izan gara. Erantzun biologiko garrantzitsuena errute goiztiarra izan da eta metabolomikako

emaitzak ikusiz, esan dezakegu, eragindako aldaketa metabolomikoek ugalketa zikloan eragin dutela zuzenean.

Amaitzeko, gure ustetan, planteatutako estrategia oso erabilgarria da eta etorkizunean gure estuario eta itsasertzetan aplikatu nahi dugu.

Erreferentziak

[1] R.P. Schwarzenbach, T. Egli, T.B. Hofstetter, U. von Gunten and B. Wehrli. Global water pollution and human health. *Annu. Rev. Environ. Resour.*, 35(1):109–136, 2010.

[2] S.D. Richardson and S.Y. Kimura. Water analysis: Emerging contaminants and current issues. *Anal. Chem.*, 88(1):546–582, 2016.

[3] B. Vrana, A. Paschke and P. Popp. Calibration and field performance of membrane-enclosed sorptive coating for integrative passive sampling of persistent organic pollutants in water. *Environ. Pollut.*, 144(1):296–307, 2006.

[4] F. Rigét, K. Vorkamp, R. Bossi, C. Sonne, R. J. Letcher and R. Dietz. Twenty years of monitoring of persistent organic pollutants in greenland biota. a review. *Environ. Pollut.*, 2015: 1–10.

[5] B. Petrie, R. Barden and B. Kasprzyk-Hordern. A review on emerging contaminants in wastewaters and the environment: Current knowledge, understudied areas and recommendations for future monitoring. *Water Res.*, 72:3–27, 2015.

[6] V. Geissen, H. Mol, E. Klumpp, G. Umlauf, M. Nadal, M. van der Ploeg, S.E.A.T.M. van de Zee and C.J. Ritsema. Emerging pollutants

in the environment: A challenge for water resource management. *Int. Soil and Water Cons. Res.*, 3(1):57–65, 2015.

[7] A. Soares, B. Guieysse, B. Jefferson, E. Cartmell and J.N. Lester. Nonylphenol in the environment: a critical review on occurrence, fate, toxicity and treatment in wastewaters. *Environ. Int.*, 34(7):1033–1049, 2008.

[8] M.H. Devier, K. Le Menach, L. Viglino, L. Di Gioia, P. Lachassagne and H.Budzinski. Ultra-trace analysis of hormones, pharmaceutical substances, alkylphenols and phthalates in two french natural mineral waters. *Sci. Total Environ.*, 443:621–632, 2013.

[9] M. Ortiz-Zarragoitia, C. Bizarro, I. Rojo-Bartolome, O. Diaz de Cerio, M. P Cajaraville, and I. Cancio. Mugilid fish are sentinels of exposure to endocrine disrupting compounds in coastal and estuarine environments. *Mar. Drugs*, 12(9):4756–4782, 2014.

[10] N. Salgueiro-Gonzalez, I. Turnes-Carou, S. Muniategui-Lorenzo, P. Lopez-Mahia and D. Prada-Rodriguez. Membrane assisted solvent extraction coupled with liquid chromatography tandem mass spectrometry applied to the analysis of alkylphenols in water samples. *J. Chromatogr. A*, 1281:46–53, 2013.

[11] P.R. Rivadeneira, M. Agrelo, S. Otero and G. Kristoff. Different effects of subchronic exposure to low concentrations of the organophosphate insecticide chlorpyrifos in a freshwater gastropod. *Ecotoxicol. Environ. Saf.*, 90:82–88, 2013.

[12] A. Jurado, E. Vàzquez-Suñé, J. Carrera, M. López de Alda, E. Pujades and D. Barceló. Emerging organic contaminants in groundwater in

Spain: A review of sources, recent occurrence and fate in a european context. *Sci. Total Environ.*, 440:82–94, 2012.

[13] C. Turgut. The contamination with organochlorine pesticides and heavy metals in surface water in Kucuk Menderes river in Turkey, 2000-2002. *Environ. Int.*, 29(1):29–32, 2003.

[14] G.O. Guler, Y.S. Cakmak, Z. Dagli, A. Aktumsek and H. Ozparlak. Organochlorine pesticide residues in wheat from Konya region, Turkey. *Food. Chem. Toxicol.*, 48(5):1218–1221, 2010.

[15] H. Kuranchie-Mensah, S. Manukure Atiemo, L. Maud N. Palm, S. Blankson-Arthur, A. Osei Tutu, and P. Fosu. Determination of organochlorine pesticide residue in sediment and water from the Densu river basin, Ghana. *Chemosphere*, 86(3):286–292, 2012.

[16] M.S. Díaz-Cruz and D. Barceló. *Personal care products in the aquatic environment.* Springer, 2015.

[17] O. Posada-Ureta, M. Olivares, P. Navarro, A. Vallejo, O. Zuloaga, and N. Etxebarria. Membrane assisted solvent extraction coupled to large volume injection-gas chromatography-mass spectrometry for trace analysis of synthetic musks in environmental water samples. *J. Chromatogr. A*, 1227:38–47, 2012.

[18] P. Ventrice, D. Ventrice, E. Russo, and G. De Sarro. Phthalates: European regulation, chemistry, pharmacokinetic and related toxicity. *Environ. Toxicol. Pharmacol.*, 36(1):88–96, 2013.

[19] ChemSpider Chemspider. http://www.chemspider.com (last visit: may 2016).

[20] N. Fidalgo-Used, E. Blanco-Gonzalez and A. Sanz-Medel. Sample handling strategies for the determination of persistent trace organic contaminants from biota samples. *Anal. Chim. Acta*, 590(1):1–16, 2007.

[21] A. Iparraguirre, R. Rodil, J.B. Quintana, E. Bizkarguenaga, A. Prieto, O. Zuloaga, R. Cela and L.A. Fernandez. Matrix solid-phase dispersion of polybrominated diphenyl ethers and their hydroxylated and methoxylated analogues in lettuce, carrot and soil. *J. Chromatogr. A*, 1360:57–65, 2014.

[22] H. Ziarrusta, M. Olivares, A. Delgado, O. Posada-Ureta, O. Zuloaga and N Etxebarria. Multiscreening determination of organic pollutants in molluscs using matrix solid phase dispersion. *J. Chromatogr. A*, 1391:18–30, 2015.

[23] S.A. Barker. Matrix solid phase dispersion (MSPD). *J. Biochem. Biophys. Methods*, 70(2):151–162, 2007.

[24] E. Villaverde-de Saa, J. Benito Quintana, R. Rodil, R. Ferrero-Refojos, E. Rubi and R. Cela. Determination of perfluorinated compounds in mollusks by matrix solid-phase dispersion and liquid chromatography-tandem mass spectrometry. *Anal. Bioanal. Chem.*, 402(1):509–518, 2012.

[25] M. Munoz-Ortuno, Y. Moliner-Martinez, S. Cogollos-Costa, R. Herraez-Hernandez and P. Campins-Falco. A miniaturized method for estimating di(2-ethylhexyl) phthalate in bivalves as bioindicators. *J. Chromatogr. A*, 1260:169–173, 2012.

[26] R.Q. Wu, X.F. Zhao, Z.Y. Wang, M. Zhou and Q.M. Chen. Novel molecular events in oral carcinogenesis via integrative approaches. *J. Dent. Res.*, 90(5):561–572, 2011.

[27] L. Garmendia, M. Soto, U. Vicario, Y. Kim, M.P. Cajaraville and I. Marigomez. Application of a battery of biomarkers in mussel digestive gland to assess long-term effects of the prestige oil spill in Galicia and bay of Biscay: tissue-level biomarkers and histopathology. *J. Environ. Monit.*, 13(4):915–932, 2011.

[28] W.S. Fisher, L.M. Oliver, J.T. Winstead and E.R. Long. A survey of oysters crassostrea virginica from Tampa bay, Florida: associations of internal defense measurements with contaminant burdens. *Aquat. Toxicol.*, 51(1):115–138, 000.

[29] J.A. Couch. *Chemically induced histopathology in aquatic invertebrates. In: Pathology of marine and estuarine organisms.* 1992.

[30] I. Marigomez M.P. Cajaraville A. Orbea and L. Garmendia. Effects of the prestige oil spill on cellular biomarkers in intertidal mussels-results of first year of studies. *Mar. Ecol. Prog. Ser.*, 306:177–189, 2006.

[31] U. Izagirre, L. Garmendia, M. Soto, N. Etxebarria and I. Marigomez. Health status assessment through an integrative biomarker approach in mussels of different ages with a different history of exposure to the prestige oil spill. *Sci. Total Environ.*, 493:65–78, 2014.

[32] O. Posada-Ureta, M. Olivares, L. Zatón, A. Delgado, A. Prieto, A. Vallejo, A. Paschke and N. Etxebarria. Uptake calibration of polymer-based passive samplers for monitoring priority and emerging organic

non-polar pollutants in WWTP effluents. *Anal. Bioanal. Chem.*, 408(12):3165–3175, 2016.

[33] I. Clausen and H.U. Riisgard. Growth, filtration and respiration in the mussel Mytilus edulis: no evidence for physiological regulation of the filter-pump to nutritional needs. *Mar. Ecol. Prog. Ser.*, 141:37–45, 1996.

[34] H. Wu, A.D. Southam, A. Hines, and M.R. Viant. High-throughput tissue extraction protocol for NMR- and MS-based metabolomics. *Anal. Biochem.*, 372(2):204 – 212, 2008.

[35] Mark R Viant. Revealing the metabolome of animal tissues using 1H nuclear magnetic resonance spectroscopy. *Methods Mol. Biol.*, 358:229–246, 2007.

[36] Madison-Qingdao Metabolomics Consortium Database. http://mmcd.nmrfam.wisc.edu (last visit: may 2016).

[37] Biological Magnetic Resonance Data Bank. http://www.bmrb.wisc.edu (last visit: 2016 may).

[38] The Human metabolome database. http://www.hmdb.ca (last visit: 2016 may).

[39] R.P. Ellis, J.I. Spicer, J.J. Byrne, U. Sommer, M.R. Viant, D.A. White and S. Widdicombe. 1H NMR metabolomics reveals contrasting response by male and female mussels exposed to reduced seawater pH, increased temperature, and a pathogen. *Environ. Sci. Technol.*, *48(12):7044–7052, 2014.*

[40] Mark R. Viant, Eric S. Rosenblum and Ronald S. Tjeerdema. NMR-based metabolomics: A powerful approach for characterizing the effects of environmental stressors on organism health. Environmental Science & Technology, 37(21):4982–4989, 2003.

[41] L.M Samuelsson, L. Forlin, G. Karlsson, M. Adolfsson-Erici and D.G. Joakim Larsson. Using NMR metabolomics to identify responses of an environmental estrogen in blood plasma of fish. Aquat. Toxicol., 78(4):341–349, 2006.

[42] W. Tuffnail, G.A. Mills, P. Cary and R. Greenwood. An environmental 1H NMR metabolomic study of the exposure of the marine mussel Mytilus edulis to atrazine, lindane, hypoxia and starvation. Metabolomics, 5(1):33–43, 2009.

[43] A. Hines, G.S. Oladiran, J.P Bignell, G.D Stentiford and Mark R Viant. Direct sampling of organisms from the field and knowledge of their phenotype: key recommendations for environmental metabolomics. Environ. Sci. Technol., 41(9):3375–3381, 2007.

[44] A. Delgado, A. Prieto, A. Vallejo, M. Irazola, A. Paschke, O. Posada-Ureta, M. Olivares and N. Etxebarria. Applicability of polydimethylsiloxane (PDMS) and polyethersulfone (PES) as passive samplers of more hydrophobic organic compounds in intertidal estuarine environments. Sci. Total Environ. (submitted), 2016.

[45] D. Mackay, W.Y. Shiu, K.-Ching Ma and Editors. Illustrated Handbook of Physical-Chemical properties and Environmental Fate for Organic Chemicals, Volume V: Pesticides. CRC, 1997.

Magnetic hyperthermia therapy project: colorectal liver metastasis

Chapter 3

Magnetic hyperthermia therapy project

3.1 Introduction

Cancer is the name for diseases in which abnormal cells divide without control and can spread through bloodstream or lymphatic system to other tissues of the body. It was once consider a fatal disease, but nowadays survival rate has increased owing to the early-stage detection. However, cancer remains the second deadliest disease after circulatory system diseases in the European Union [1]. According to GLOBOCAN 2012 [2] (a project to estimate the incidence of mortality and prevalence from major types of cancer worldwide), an estimated 14.1 million new cancer cases and 8.2 million cancer-related deaths occurred in 2012. The most commonly diagnosed cancers worldwide were those of the lung (13.0% of the total), breast (11.9%) and colorectum (9.7%). Among all the cancer types, the most common causes of cancer death were cancers of the lung (19.4% of the total), liver (9.1%), and stomach (8.8%) [2].

